

ELKARRIZKETA: JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

ARKO

# Arrasate

UPRESS

1996ko  
Matxoak 29  
314. zenb.

KULTURA

Ines Osinaga  
eta Naiara  
Okina

IRITZIA

Klara  
Elkorobarrutia

BERRIAK

Plenoko gaiak

Ezkontzeko  
gorabeherak



# LENIZ ALUMINIOAK

*Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.*

## Gure leihoen ezaugarriak:

- Oskilo batienteko leihoa.
- Junkilo eta orria apaingarriagoa den borobilean.
- 60 mm.ko markoa eta 60 mm.ko orria.
- Seguritateko ferraketa erregulagarria.
- Ganbara isolagarriko kristala.
- Erreforzuko ganbara duen kaxoi termikoa.
- Poliuretanozko bitsez beteta dagoen pertsiana.


## Gure instalakuntzaren ezaugarriak:

- Poliuretanozko bitsarekin instalakuntza.
- Barrualdea perlieskaiolazkoa eta kanpoaldea zementuzkoa.
- Egurrezko kaxoien hutsuneen errematea.

## Oharra

Prezio hauetan instalakuntza osoa sartzen da, aurrez aipatutako ezaugarriekin.


BI ORRIKO ATEA




BI ORRIKO LEIHOA



BI ORRIKO LEIHOA



ORRI BATEKO LEIHOA



**P.V.C.an udaberriko beharapen bereziak!**

# LENIZ

Leihoen neurria zure beharretara egokitzen dugu. Mota guztietako leihoak ditugu: poliuretanoa, aluminioa, apurketa termikoa...

**Erakusketa eta salmenta:**

**Labega kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu**

# Galderak haizeari

**K**anpotik Arrasatera heldu eta Maltzaga-Urbina (edo Eibar-Gasteiz?) gorabeherekin egin nuen topo ATBn. Aurreko baten, ikasle sasoiako lagun talde batekin afora Bilbon eta, tropelean, metroa hartu genuen herritik hirira joandako koadrilaren antzera. Guggenheim erraldoi eta arrotz hori ere apurka esnatzera doala ikusi genuen. Andoaindik Iruñera ere egin dut jadanik makinatxo bat paseo autobide iskanbilatu eta ospetsu hartaz baliatuz.

Maltzaga-Urbina autopista, Bilboko Metro-jostailua, Guggenheim eta Andoain-Irurtzun autobia. Egin ondoren guztiak bikainak, ze ondo, baina ikusteko geratuko da dirutza horiekin eta haien alternatibekin horren ondo moldatuko ez ginen.

Ez naiz sartuko "beharrezkoak" diren ala ez, batzuk besteak baino gehiago seguruenik, eta haien alternatibek "behar" horiei erantzungo lieketen ere airean geratzen da, ez baitira gauzatu. Baina, tira, horiek ei dira garapena, modernitatea eta aberastasunaren iturri.

Deba Beherean, ostera, Eibarrek eta Elgoibarrek autopista aldamenen izan arren, krisiak gogor kolpatu ditu; Bilboko Ezkerraldean edo Oarso-Bidasoan beste horrenbeste, baina han ere garapen ekonomikoak guztiok ezagutzen ditugun gorabeherak sofritzen ditu. Ez dut demagogiarik egin gura garapena eta adibide zehatz horiekin, jakin baitakit krisiak faktore askoren menpe daudela, baina beste batzuk ere ez dezatela demagogiarik egin garapena eta proiektu faraoniko horiek bateratuz.

Komunikazio sare ahalik eta egokienak eraiki behar dira, baina baita modu logiko eta orekatuenean ere, eta bide injinaria izan barik ere badakit Zornotza zeharkatzeko (edo Arrasate etorkizun) hiru zeharkabide egitea (general zaharra, bariantea eta autopista) logikari eta garapenari burla egitea dela. Baina beno, hiritarrok burla egitearen kontura ohitu samar gaude, batez ere makroproiektu horietako aurrekontuak bukaeran bikoiztu edo hirukoiztu egiten direnean.

Krisia, Mahastrichteko konbergentzia planak eta hainbat arrazoi tartean, herritarrok gerrikoa estutu behar dugun bitartean, instituzioek leporainoko zorrak dakartzaten makroproiektuekin aurrera jarraitzen dute, euren aurrekontuetako zati oso handiak bakarrik interesak ordaintzeko erabiliz. Moztu behar denean, "Moztu dezagun gastu sozialetatik": seguritate soziala, langabezi subsidioak... hori bai garapena!. "Helduixok horri txikito". Hemen bankuen interesez aparte, bestelakoak -pertsonek, alderdikoak...- ere badira antza.

Bilboko metroa polita? Bai, jakina, baina beharrezkoa? Andoain-Irurtzun autobia, azkarra? Noski, baina tarteko herri denak garatuagoak al daude? Eta Guggenheimekin Bilbo kulturalagoa? Eta Maltzaga-Urbinarekin Arrasate Gasteiza ordu laurdenean? Orain arte ordu erdi eta hobekuntzekin 20-25 minutu; merezi al du horrelako triskantzik eta diru xahuketarik? Noiz eta non amaitzen da 'garatu' eta 'modernizatu' behar hori? Haizeak erantzun dezala.

**XABIER LETONA**

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

### Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotritzitatea eta  
hizkuntz bereziera)  
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE

# Memesa

## 79 42 22




### ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko  
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurilaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

### • ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publikatzailea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketatzailea:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Leintz Bertsos esko-la, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martínez, Iban Astondo, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).


ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Azala: Golo Arana

# TeleAzoka



**Apirilaren 18tik** aurrera  
zure iragarkiak **merke-merke**  
teletestuan.  
Astero astero iragarki berriak!

 **TB**  
ARRASATE

Informazioa: **77 08 15**

# Gustatzen zaizu ezkontzetara joatea?



**Ione Urrutia**  
**Ikaslea**  
**(12 urte)**

Bapo pasatzen dut baina ez naiz askotara joaten. Jendea ezkontzea ondo iruditzen zait, dena dela, oraindik ez dut ondo ulertzen.



**Eloi Zubizarreta**  
**Jubilatua**  
**(65 urte)**

Familiako ezkontzetara joan izan naiz, baina kanpo-koetara gutxi. Ezkontzetan oso ondo pasatzen dut, ondo jatea eta dantzan egitea gustatzen zait eta.



**Antxoni Zubizarreta**  
**Administraria**  
**(41 urte)**

Aspaldi ez naiz egon, baina gustatzen zait. Primeran pasatzen dut ezkontzetan, dantzan egin, abestu eta horrelako gauzak egitea izugarri gustatzen zait-eta.



**Migel Begiristain**  
**Jubilatua**  
**(67 urte)**

Hiletak baino nahiago ditut, hori duda barik!. Ahal dudan guztietara joaten naiz. Familiartekoetan pasatzen dut ondo batez ere.



**Elena Berezibar**  
**Gizarte Laguntzailea**  
**(33 urte)**

Bai atsegin ditut baina gutxitara joaten naiz. Ezkontzetatik dena gustatzen zait, elizkizuna, bazkaria eta gero juer- ga egitea.



**Juan Murillo**  
**Mekanikoa**  
**(29 urte)**

Urtean bat gustora hartzen da, baina ez gehiago. Azkenaldian bi ezkontzetan izan naiz. Lagunen ezkontzak ditut gustokoen.



**Puri Urrutia**  
**Etxekoandrea**  
**(36 urte)**

Gutxi edukitzen ditut baina gustora joaten naiz; jendearekin egoten zara, dantzan egiten duzu...



**Rafa Garcia**  
**Langabetua**  
**(18 urte)**

Ezkontzei buruz ez dakit asko, ez naiz askotara joan eta. Egon naizenetan ederto pasatzen dut. Ezkontzetako janaria, edaria eta giroa gustatzen zaizkit gehien.

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**MICROS'S** Informatika

Osagarri eta memorian  
eskaintza bereziak!

J. Luis Iñarra, 20 • Tfnoa: 79 81 30 / (908) 14 33 62  
ARRASATE

**beatriz**

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Iguatorialoia .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze Gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria .....77 03 46  
 • Espzialitateak .....77 05 78  
 77 12 64  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....088

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....088

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (iberduero) .....12 01 62  
 Gasa .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburategia**  
 Monterron .....77 01 05

**Irratia**  
 Arrasate Irratia .....79 58 77

**29 OSTIRALA**

• **ZINEA**  
 "Sospechosos habituales" 7etan eta 10etan.

• **IKASLEEN KONTZERTUA**  
 Arrasate Musikaleko Aretoa  
 ikasleen kontzertua arratsaldeko 6.30etan.

• **PENITENTZIAREN OSPAKIZUNA**  
 Bazko-jaiak kristautasunez prestatzeko San Frantzisko elizan Elkarteko Penitentziaren ospakizunak arratsaldeko 7.30etan.

• **IGERIKETA TXAPELKETA**  
 Aletadun igeriketa txapelketa Musakolako kiroldegian gaueko 9etatik aurrera. Arrasateko igeri taldeak antolatuta.

**30 LARUNBATA**

• **ZINEA**  
 "Jumanji" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **MANIFESTAZIO NAZIONALA GASTEIZEN**  
 Gasteizen izango den manifestazio nazionalera joateko auto karabana aterako da arratsaldeko 4etan Arbola-petatik. Ordu berean autobusa ere izango da. Manifestazioa arratsaldeko 5.30etan hasiko da.

• **ERRAMU ZAPATUA**  
 9.30etan Feria Seminarioan eta Simon Arrieta plazan. 12.30etan Txorimalo lehiaketaren sari banaketa Ibargaraien. 1.30etan Bertsolariak: Azpillaga eta Agirre. Arratsaldeko 5.30etan herri kirolak eta ume jolasak San Martin Plazan eta gaueko 10.15etan Bertso jaialdia Udal Pilotalekuan. Gaijar-tzailea: Laxaro Azkune. Bertsolariak: Euzkitze, Lizaso, Iturriaga, Mendiluze, Gorrotxategi eta Irazu.

• **PIANO KONTZERTUA AMAIA ANTZOKIAN**  
 Amaia Epelde piano jolearen kontzertua arratsaldeko 7.30etan Amaia antzokian.

**31 IGANDEA**

• **ZINEA**  
 "Jumanji" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **ORDU ALDAKETA**  
 Zapatu eta domeka bitartean ordu aldaketa. Goizaldeko 2etan 3ak izango dira.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**  
 Ibilbidea: Arrasate, Arlaban, Legutiano, Gopegi, Legutiano, Kurtzeta gaina, Arrasate. 70 kilometro. Irteera goizeko 10etan Monterrondik.


• **DOKE TXAPELKETA**  
 Gazteen arteko doke txapelketa Monterronen goizeko 11etan. 12. edizioa izango da.

**EUSKAL DANTZEN IKASTAROA**

Mutilei zuzendutako euskal dantzen ikastaroa apirilaren 15ean hasiko da, astelehenero arratsaldeko 6.30etatik 7.30ak arte, 6 urtetik 10 urtera arteko mutilentzat. Lore Gazteak dantza taldeak antolatuta.

**ORDU ALDAKETA ZAPATU ETA DOMEKA BITARTEAN**

**Larunbat eta domeka bitartean ordu aldaketa egingo da. Goizaldeko ordu bietan aldatu behar da ordularia eta ordu bete gehiago jarri. hau da, ordu bietan hirurak izango dira.**



**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 29**

Egunez eta gauez: Irizar, Erguin.

**Larunbata 30**

Egunez eta gauez: Amezua, Santamaina.

**Igandea 31**

Egunez eta gauez: Ruiz, Maala.

**Astelehena 1**

10ak arte: Morales, San Andres, Egunez eta gauez: Cuellar, Bergara.

**Astearte 2**

10ak arte: Azkoaga, Ferrerías, Egunez eta gauez: Estella, Bergara.

**Asteazkena 3**

10ak arte: Español, Iturriotz, Egunez eta gauez: Mozos, Bergara.

**Osteguna 4**

10ak arte: Corcuera, Musakola, Egunez eta gauez: Camacho, Bergara.

**1 ASTELEHENA**

- **ZINEA**  
"Jumanji" 7etan eta 9.30etan.
- **HAURREN LIBURUEN NAZIOARTEKO EGUNA.**

**2 ASTEARTEA**


- **ZINEA**  
"Jumanji" 7etan eta 9.30etan.
- **SAN JUAN JAIK ANTO-LATZEKO BILERA**  
1.996ko San Juan jaiak antolatzeke herriko kultur taldeekin bilera izango da arratsaldeko 7etan Monterroren.

**4 OSTEGUNA**

- **ZINEA**  
"Smoke" 7etan eta 9.30etan.
- **GAZTE TOPAGUNEAK**  
Gazte topaguneak Zaldibian apirilaren 6a arte Jarraik antolatuta. Autobusa goizeko 10etan Garibaien.

**KIROL IKASTAROAK**

Igeriketa monitorea 18 urtetik gorakoentzat. Apirilaren 13, 20, 27 eta maiatzaren 4 eta 11an Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Tenis instruktorea 16 urtetik gorakoentzat. Maitzaren 3, 4 eta 5ean Oñatiko Zubikoa Kiroldegian. Golf ikastaroak 16 urtetik gorakoentzat Musakolako Kiroldegian eta Lagranen. Ikastaro hauetan parte hartzeko eta informazio gehiago izateko deitu 79 04 27 zenbakira. Deba Garaiko Mankomunitateko kirol Zerbitzuek antolatuta.



**IGERIKETA TXAPELKETA**

Aletadun igeriketa txapelketa Musakolako kiroldegian gaueko 9etatik aurrera. Bertan Arrasateko igeriariak izango dira. Txapelketa Euskadiko eta Estatuko txapelketerako joateko baliogarria izango da.

**IX. ARGAZKI LEHIAKETA ARETXABALETAN**

**Nahi duten argazkizale afizionatu guztiek har dezakete parte. Bi maila: A) gaia librea. Txuri beltzeko paperean nahiz koloretan. Tamaina nahi dena baina 30x40eko euskarrietan jarrita. B) gaia mendia bere hedapan osoan. Lanak Murruxio M.E. 34 postakutxatila, Aretxabaleta, helbidera bidali behar dira apirilaren bata baino lehen.**

**HIRU HANDIAK HIRU EGUNETAN**

Apirilaren 11, 12 eta 13an hiru handiak hiru egunetan (Aitzgorri, Anboto eta Gorbea) AEDk antolatuta. Gatzagan eta Urkiolan egingo dute lo. Izenematea AED edo Gazte Bulegoan apirilaren 9a baino lehen. Prezioa: 3.500 pta.

**TAILA IKASTAROA**

**Apirilaren 15etik aurrera taila ikastaroa Arrasateko Tailaginen elkartearen. Hasierako maila. Izena emateko deitu gualdean 79 40 79 (Felix) eta 79 67 64 (Imanol) zenbakietara. Arrasateko Tailaginen Elkarteak antolatuta Udalaren laguntzaz.**

**UDABERRIKO IKASTAROAK**

Patinaje eta Fitness ikastaroak. Patinaje hasierako ikastaroa Aretxabaleko kiroldegian. Irakasleak Josean Iñarra eta Sabin Ulazia. Egunak: Apirilaren 20, 27 eta maiatzaren 4 eta 11an. Orduetgia goizeko 9etatik 11etara. Hobekuntza ikastaroa Musakolako kiroldegian maiatzaren 18, 25 eta ekainaren 1ean. Prezioa 1.500 pta. bazkideentzat eta 2.000 pta. ez direnentzat. Fitness ikastaroa Musakolako kiroldegian ekainaren 8an goizeko 9etatik arratsaldeko 6ak arte. Irakaslea Tomas Zubimendi. Ikasgaiak: oinarriko arauak, makinaren erabilera. Prezioa: 2.000 pta bazkideentzat eta 3.000 pta ez direnentzat. Informazio gehiagorako deitu 79 04 27 zenbakira.

“... Bada CCOOko afiliatu eta gidarien artean, zinikoki, korrante kritikoaren aurkako errepresioa bultzatzen ari denik, eta bada ere, zintzotasunez, min egiten diolako, gure sindikatuaren irudi galtzearen ondorioz tristetzen denik. Guk ez dugu horrela ikusten. Bere garaian UGTri gertatu zitzaion bezala, uste dugu gaur egungo guda ere CCOOren aurpegiatariko bat dela, barruko errealitate bat isladatzen duena, normalean etxe barruan sufritzen dena. Eta ondo dago batzuetan etxetik kanpo ere ikustea. Ez zaigu altareetan santuak edukitzea gustatzen, gutxiago merezi ez badute”.

**Juan Ramon Garai - Jesus Uzkudun, 1996-3-20.**

**egin**

“... Momentu honetan trekkingak eta beste era bateko turismoak guk baino kalte handiagoa egiten dutela uste dut. Bestalde, beste garaietako espedizio astun horietakoak, gaur egun dezente gutxiago egiten dira. Espedizioak zenbat eta arinago izan orduan eta zakar gutxiago uzteko aukera egoten da. Horretaz aparte, jendea badoa mentalizatzen ingurugiroa apur bat zaindu egin behar dela. Jendea badoa kultura hori hartzen. Urterik txarrenak pasatu direla uste dut. Nahiz eta baldintzak oraindik hobetu daitezkeen, behintzat bagoaz pixkanaka-pixkanaka kontzientzia hartzen

**Alberto Iñurrategi, 1996-3-21**

... Adibidez, hemengo Udalak, Aretxabaletakoak, etxebizitzaren politikarekin kristoren exijentziak eskatzen ditu etxebizitza bat edukitzeko. Gero kristoren mamotretokoak eraikitzen ditu, eta hori leku guztietan gertatzen da”.

**Felix Iñurrategi, 1996-3-21.**

**Egunkaria**

**Aurtengo urteari begira zein helburu finkatu duzue?**

**O**rain arte egin ditugun ekintzekin jarraitzea izango da helburu nagusia. Iaz ikastaroak eta hainbat hitzaldi antolatu genituen, eta harrera ona izan dutenez, aurtengo urteari begira ere horretan jarraitzea erabaki dugu.

Ikastaroei dagokienez lau ikastaro desberdin antolatu ditugu, baina batez ere hiruk izan dute arrakasta: eskulan, sukaldaritza eta saloi dantzen ikastaroak. Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeei ikastaroteko parte hartzeko aukera emateko, gainera, bi ordutegi desberdin eskaini ditugu.

Esan bezala ikastaroei buruzko balorazioa egin dugu, baina hitzaldietan parte hartzea ere ona izan da. Gaiaren garrantziaren arabera, jende gutxiago edo gehiago hurbildu da hitzaldietara. Aurtengo urteari begira hitzaldi antolatuko ditugu gaurkotasuneko gaien inguruan.

Gutxi gorabehera 100 bat emakumek parte hartzen dugu Ekin elkartearen ekintzetan, gehienok 35 urtetik gorakoak. Gustatuko litzazuke jende gaztea ere elkartera hurbiltzea, batez ere 20 eta 25 urte bitartekoak. Horregatik, ez dugu baztertzeko jende gaztea erakartzeko ekintzaren batzuk antolatzea ere.

Lehenengo urteetan AEDren barruko taldea izan zen Ekin, baina dirulaguntza gehiago jaso asmoz iaz erakunde egin ginen. Urtebete pasa da bakarkako bideari ekin genionetik, eta orain arteko esperientzia ona izan dela esan dezakegu. Hori bai, hasierako helburuarekin jarraitzen dugu: euskara bultzatzea.



**Miren Etxebarria**  
EKINeko lehendakaria.

**PARDO** estetika zentrua

**ARGIZARIZKO DEPILAZIOA**

10 saioetatik orain 1 dohan

Iparragirre Enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎ 79 52 17 ARRASATE

**\*SOLARIUMA DUTXAREKIN**

<p><b>Lehen</b></p> <p>10 saio + 1 dohanik <del>14.000 pta.</del></p>		<p><b>Orain</b></p> <p>10 saio + 1 dohanik <b>8.000 pta.</b></p>
---	--	--

*\*Apirilaren 30era arte baliagarria.*

*Epelde*

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8  
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23



*ESLU*

**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE



**Eskualdeko manifestazioa**

Manifestazioa egin zen igandean Arrasaten presoen Euskal Herriratzea eskatzeko. Inguruko herrietako hainbat lagunek parte hartu zen protesta ekintzan. Erdialdeko kaleak zeharkatu ondoren, Garibai etorbidera joan ziren manifestariak eta minutu batzutan bidea moztuta eduki zuten. Presoen Euskal Herriratzearen aldeko eta sakabana-ketaren aurkako ohiuak entzun ziren manifestazioan, besteak beste.

Astean bestalde, baraualdia bukatu dute azken txandan parte hartu duten bost arrasatearrek. Orain, txapeoa hasi dute presoen eta horren arabera ez dute telefono deirik eta bisitarik jasoko. Arrasatearrei dagokienez, Jon Arexolaleiba ari da txapeoa egiten.

Pako Robles preso arrasatearra bestalde, Leongo kartzelatik Asturiaseko Villabonara eraman dute.

**Gasteiz-Eibar autobidea aurrera**

Joan den ostegunean ezagutzera eman zen hiru enpresek egingo dutela Gasteiz-Eibar autobidearen idatzizko proiektua. Autobideak hiru zati izango dituzenez, bakoitzaren idazketa enpresa batek egingo du. Gasteizetik Eskoriatzara doan zatia



**Hezibide elkarteak iazko urtearen balantzea egin**

Hezibidek urteko Batzar Orokorra egin zuen asteazkenean. 95eko jardunean kalitatearen garapena oso garrantzitsua izan zela azpimarratu zuten. Jeitsiera demografikoak eragina izan duen arren, Hezibideko ikasleek jeitsiera hori gutxi igarri dutela, eta elkartearen eskoletan 4.726 ikasle daudela ere jakinarazi zuten. Batxilergoa ikasteko aukera emateaz gain, lanbide moduloen eskaintza ere egiten du Hezibidek, eta ikasturte honetan 400 ikasle ari dira moduluetan.

Euroestudios enpresak egingo du; Eskoriatzatik Bergarara doana Fulcrum enpresak eta Bergaratik Eibarrera artekoa Prointek. Bederatzi hilabete barru proiektuak idatzita egongo dira.

**Ikasleak antzezle**

Asteartean eta asteazkenean Arrasateko hainbat ikasleek eurek prestatutako antzerki obrak antzeztu zituen. Emanaldiak goizez eta arratsaldean izan ziren Amaia antzokian. Guztira bost obra antzeztu zituzten LH eta OHOkoi goi zikloko

ikasleek.

Udalaren Hezkuntza eta Kultura Batzordeak antolatutako antzerki programa abenduan hasi zen. Orduan talde profesionalen emanaldiak izan zituzten ikusgai, ikasleek, ondoren Amaia antzokia ezagutzeko aukera izan zen, eta azkenik, ikasleak bihurtu dira antzezle.

**Lapurretak**

Astearte goizean apurtuta agertu ziren Ignacio Zuloaga kalean aparkatuta zeuden lau autoetako kristal batzuk.

Egin diren salaketen arabera, hiru irratikaset lapurtu zituzten.

**Nola estimulatu haurra?**

San Frantzisko Xabier ikastolaren eskutik, "nola estimulatu haurra?" izenburuaz hitzaldia izan zen asteazkenean. Hitzaldia haur hezkuntzako gurasoei zuzenduta zegoen, eta guraso asko hurbildu zen ekintzara. Mireia Arregi logopedak azaldu zuenez, 0 eta 6 urte bitarteko umeen hezkuntzak garrantzia handia du, adin horretan hezkuntzaren oinarriak finkatzen dira eta. Bestalde gurasoek umeari ematen dioten hezkuntzak zerikusi handia duela, eta gurasoek umearen iritzi propioa eta kritikoa bultzatu behar dutela esan zuen.

**JAIOTZAK**

- Danel Perez Inurria. Martxoaren 14an.
- Iker Hernandez Morales. 19an.

**HILDAKOAK**

- Julian Zabala Madina. Martxoaren 16an. 85 urte.
- Cesar Contreras Cordero. 18an. 31 urte.
- Manuela Marcianes Arellano. 19an. 58 urte.
- Asunción Igartua Amestoi. 21ean. 91 urte.
- Antonia Marrupe Rodriguez. 22an. 69 urte.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



**Leber Tapizariak**

- Altzari klasiko eta modernoa
- Konponketa eta tapizatuak
- Tapizagintza orokorrean

TAILERRA: Urteaga kalea, 6 behea. Tfnoa: 76 50 37 • BERGARA  
HELBIDEA: Olarte kalea, 16. Tfnoa: 79 01 18 • ARRASATE



\* Klara Elkorobarrutia

## Animalienganako krudelkeriarik ez

Bi urtetik behin botoa emateko deia luzatzen digute. Botoia sakatu eta ordenadorea martxan jartzea bezala da. Fruitu heldu eta goxorik ematera sekula heltzen ez diren mugimendu hotz eta mekanikoa eta pentsamendu gogortuak dira.

Gaur egungo politikaren robota ez da arazoen sustraira joaten. Bere analisiak azalekoak dira, animalia-gizakion zilborrari baino ez baitio begiratzen, Lurrean gizakia bakarrik balego bezala, 2, 4, edo hanka gehiagoko bere jenerokideak gaitzetsiz.

Analisi politiko, ekonomiko, sozial eta kultural handiek ez dute gizartearen aurreapenerako balio baldin eta kontuan hartzen ez badugu animaliek beren izaera eta interesak eta gizakion errespetua izateko eskubidea dutela. Gainera, zeharka bada ere, izugarritzko eragina dute bizitzaren arlo guztietan.

Gure gizarte antropozentrikoak, egoismoz, arrazakeriaz eta espezieismoz beteta dagoenak, planetaren errega izendatu du bere burua eta errugabeko izakiekin ez baitira ez terrorista, ez lapur, ez bortxatzaile, ez zapaltzaile-

krudelkeria eta biolentziazko ekintzak burutzen ditu. Ezin izango dugu inoiz bakea lortu, gure eguneroko ekintzak animalienenganako biolentziaz josita dauden bitartean.

Aizu, gizona edo emakumea, ba al dakizu zer den Draize testa? Untxi baten begian, lepotik helduta mugimendua galeratzen zaiolarik, produktu bat isurtzen da ultzera, hemorragia, itsutasuna eta abar sortu arte (beste begia kontrolatzeko erabiltzen da). Mina izugarria denez, batzuetan untxiek bizkar-hezurra apurtu ere egiten dute askatu eta ihes egin nahian.

.....

**“Arrazoi handiz esaten zuen Gandhik ondorengoa: “Errugabeen odolez egindako aurkikuntza zientifikoei balio guztia ukatzen diet”**

Naziek egiten zituztenak gogorarazten dituzten basakeria guzti horiek gure apetak edo kapritxoak asetzeko eta sistema militarren indarkeria hobetzeko egiten dira. Baina alferrikako esperimenduak dira; arrazoi handiz esaten zuen Gandhik ondorengoa: “Errugabeen odolez egindako aurkikuntza zientifikoei balio guztia ukatzen diet”.

Animaliek sentitu egiten duten izaki kontzientziadunak dira. Guk bezala, mina edo sufrimendua eta plazer sentitzeko gaitasuna dute eta gauza dira, besteak beste, aukera ezberdinen artean hautatzeko, erabakiak hartzeko, tresnak egiteko, ama eta seme-alaben arteko harremanak izateko, komunikatzeko, harreman afektiboak bizitzeko eta imitatzeko modukoak diren egitura sozial konplexuak eta portaera-ereduak eraikitzeko.

- Esklabuak beren esku-bideen alde borrokatu ziren.

- Beltzek beren azalaren edertasuna aldarrikatu zuten.

- Emakumeak beren esku-bideen alde altxatzen dira.

- Nik, ostera, galdera hau egin nahi dut: ba al dago inor animalien alde kolorezko lazorik jartzen duenik?

Arrasaten, apirilaren 15etik 21era, Monterronen animaliek jasaten dituzten tratu txarrei buruzko erakusketa izango da ATEAren eskutik (animaliekiko tratu etikoaren aldeko elkarte). Oso interesgarria da eta ikustera joan zaitezten animatzen zaituztet. 6etatik 8etara izango da zabalik eta larunbat eta igandean 12etatik 2etara.

\* **EKIko KIDEA**

## USTEAK USTE

### HANDIK HONA IJITOekin

Betidanik gaizki ikusita egon izan dira ijitoak. Gogoratzen dut txikitan nola etortzen ziren herrira, zaldiz tiratutako karroetan. Neska-mutikoen artean segituan zabaltzen zen berria, “Ijitoak etorri dira”. Ausartenak ere etxerako bidean jartzen ziren, amari edo aitari esatera. Gurasoek beti atearen kanpoaldean zintzilik egoten zen giltza hartu eta barrura sartzen zuten. Ijitoek aldaba jo eta ez genien zabaltzen.

Mendez mende eta ahoz aho belaunaldi desberdinek antzerako mezuak jaso dituzte. Azkenaldian, gauzak dezente aldatu dira. Arrazismoaren aurkako mezuak eta jarrerak, gero eta zabalagoak izateaz gain, errotuago daude gizartean. Hala ere, beste askori - magrebiar, bosniar, kolonbiar...- iristen zaien elkartasunaren arrastorik ez da ijitoengana ailegatzen. Munduko kultura marginatuena osatzen ei dute ijitoek.

Musakolara etortzen dira noiz behinka. Hilabete t'erdiko egonaldiren bat ere egin ei dute, bertako bizilagunak nazkatu eta sinadurak biltzera bultzatzeraino, auzotik bidaltzeko eskatuz. Bazterrek zikin zikin utzi, umeak diru eskean jarri gero nagusiak mozkortu edo tabernataka makinatan gastatzeko... horiek izan ei dira haserrearen eta eskaeraren arrazoi nagusiak.

Ijitoek eskubide osoa dute euren erara bizi izateko, baina irauan gura badute gizartearen gutxiengo arau batzuk onartu beharko dituzte. Bestela gizarteak ez die barkatuko, jai izango du ijitoen kultura nomadak, zaldiz baino furgonetatan mugitzen badira ere.

BEÑARDO KORTABARRIA



Ohi moduan San Juan auzoan eta San Andresen egin ahal izango dira merkadilloak.

## Herriz herriko salmenta arautu eta azokakoa aldatu egingo ditu plenoak

Eusko Jaurlaritzak 94an onartutako lege-ari jarraituz, herriz herriko salmenta arautu behar da, eta Arrasateko Udalak gertu du horri buruzko ordenantza. Araudiak ez du aldaketa nabarmenik ekarriko, ohi moduan San Juan plazan eta San Andresen egingo dira merkadilloak. Hemendik aurrera hala ere, Udalak emango du salmenta egiteko kontzesioa eta urtero lehiaketa bidez berritu egingo dira kontzesio horiek. Bestalde, azokaren araudia puntu batean aldatzea proposatuko da. Orain arte eta ezer ordaindu gabe, jabea hiltzen zen kasuetan bakarrik uzten zen azokako postua familiartekoen esku. Hemendik aurrera, jubilatzen denean edo istripu baten ondorioz elbarri geratzen denean ere dohainik utziko zaie, baina seme-alabari edo bikoteari.

HBk bestalde, hirukoak onartu zuena indargabe uzteko errekurtsioa jarri duela jakinaraziko dio plenoari. Enpresa Berritzaileen

Zentruaren jarraipena egiteko batzordea eratzeari onartu zuen hirukoak, baina HBren ustez ez legezkoa da hori. EBZaren batzordeak asteartean egin zuen lehenengo bilera, eta EAJ, PSE-EE eta EAKo bozeramaleak bakarrik izan ziren batzarrean. Eskola Politeknikoak zentruaren inguruan egin duen proiektua aztertu zuten lehenengo bileran.

Bukatzeko, Senideak elkarteak aurkeztu duen proposamen bat ere aztertuko dute. "Euskal Presoak Euskal Herriratu arte" dioen anagrama atera du Senideak-ek, eta orain, anagrama hori Udaletxeko balkoian jartzea eskatuko diote plenoari. Aurreko plenoan alderdi guztiei anagrama banatu eta ikurra jartzeko eskaria ere egin zieten.

Plenorako prestatu den gai zerrendaren arabera, zortzi gai aztertuko dira gaurko osoko bilkuran. Azkenaldian bezala hala ere, baliteke bukaeran beste gai batzuk mahain-gainera ateratzea.


### SOS Arrazakeriakoak Arrasatera etorri

Musakolara etortzen diren ijitoen auziari irtenbidea bilatzen laguntzeko, Gipuzkoako SOS Arrazakeriako bi lagun etorri ziren asteartean Arrasatera. Hasiera batean Gipuzkoako Ijitoen Elkarteko kide bat etorriko zela ere uste zen, baina azkenean ez zen etorri.

Udalaren aldetik bi teknikari, Xabier Zubizarreta alkateta, Joseba Ugalde EBko zinegotzia eta langile batek parte hartu zuten bileran. Lehenengo Udaleko ordezkariak sortu den arazoari buruzko berri eman zioten arrazakeriaren kontrako kideei, eta ondoren, guztien artean arazoa zelan bideratu aztertu zuten.

Hitzegindakoaren arabera, ijitoak berriz etortzen badira eurekin harremanetan jarriko dira zein arazo duten eza-gutu eta gutxieneko arau batzuk ere bete behar dituztela jakinarazteko. Kasu horretan, gainera, Gipuzkoako ijitoen elkarteko kideei laguntza eskatuko litzaieke ijitoekin hitzegin zezaten.

Bileran bestalde, aipatu zen sortu den arazoa bakarrik ez dagokiola Arrasateri, eta horregatik, Gipuzkoako Diputazioari ere eskatuko zaio parte hartzea. SOS Arrazakeriakoek hartu zuten Foru Aldundiko arduradunekin egoteko konpromezua. Musakolara etortzen diren ijitoak Donostian eta Beasainen ere izan dira besteak beste.



**PARDO** estetika zentrua

**ARGIZARIZKO DEPILAZIOA**

10 saioetatik orain 1 dohan

Iparagirre Enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎ 79 52 17 ARRASATE


**\*SOLARIUMA DUTXAREKIN**

Lehen	Orain
10 saio + 1 dohainik <del>14.000 pta.</del>	10 saio + 1 dohainik <b>8.000 pta.</b>



*\*Apirilaren 30era arte baliagarria.*

Eskaintza bereziak!



Hirukoa bere proiektu propioa lantzen ari da.

## Apirilaren 9rako aurkeztu beharko dira emendakinak

Hazienda Batzordean ezarri den dataren arabera, apirilaren 9rako aurkeztu beharko dira 96ko aurrekontuei buruzko emendakinak. Beraz, apirilaren bukaeran aurrekontuen gaia aztertzeko plenoa egingo dela uste da.

HBk eta EBk egin dute euren proposamena, eta astean hirukoak txosten hori jaso du. Gobernu kideek egindako diru banaketan zein aldaketa egin aztertzen ari dira orain EAJ, PSE-EE eta EA. Ignacio Jimeno, zinegotzi sozialistaren berbetan, oraindik ez dakite aurrekontu alternatiboak aurkeztuko dituzten baina euren proposamena desber-

dina izango da. Batez ere lurzoru industria- la eskaini ahal izateko HBk eta EBak baino, diru gehiago luzatzea eskatuko dute.


Gobernu kideek idatzitako txostenean 2.797 milioi gastatzea aurriztatu da, beraz iaz baino zazpi milioi gutxiago. Helburua gastuei eustea izanik landu dute bi alderdiek proposamena, eta Emakumearen Batzordeari 14 milioi ematea aurriztatu dute. Bi alderdien artean hala ere badaude desadostasunak, adibidez, Mojategirako edo frontoia egiteko edo talde ez gubernamentalei zuzendu nahi zaien kopuruen inguruan.

## Oraingoz adierazpenik ez

Egunkari batzuek "Mondragon Unibertsitatea" proiektuari buruzko hainbat informazio kaleratu badute ere, Eskolako arduradunek ez dute horiei buruzko adierazpenik egin nahi izan. Astean Batzar Orokorak egin behar zituzten bazkideek proiektuari baiezkoa emateko. Apirilaren bukaeran, proiektuak parlamentuaren baiezkoa izandakoan, "Mondragon Unibertsitatea" proiektua publikoki aurkeztekotan geratu dira.

## Euskararen Hitzarmenak sei urte bete

Martxoaren 28an sei urte bete ziren Euskararen Hitzarmena sinatu zela. Udaleko Euskara Zerbitzuak hitzarmenaren inguruko balorazio sakona egin nahi du, eta horretarako, hitzarmena sinatu duten talde batzuen artean inkesta egingo dute. Datuak eskuartean izan ondoren, guztien artean hitzarmenari buruzko proposamenak landu eta plazaratzeko asmoa dago.



# URONDO

## elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

# Ezgaitasunen bat izatea ez da kirolerako oztopo

Oscar Carrasco eta Angel Zeziaga kirol irakaslee n ustez, garrantzitsua da ezgaitasun bat duten gazteek ere kirola egitea eskolaz kanpoko orduetan. Horregatik, 6-16 urte izan eta arazo fisiko, psikiko edo sensoriala duten gazteei kirola egitera bultzatzeko programa prestatu dute.

Programa Diputazioan eta Deba Garaiko Mankomunitatean aurkeztu dute, eta bi erakundeek proiektua diruz laguntzea onartu dute. Lehenengo eskualdeko herrietan hasiko da proiektua baina baliteke ondoren probintziako beste herrietan egitea ere.

“Deba Garaian ezgaitasunen bat duten 90 gazte inguru daude eta batzuek kirol ekintzetan parte hartzen badu-



Kirola egiteak abantaila asko ekar diezaike ezgaitasunen bat dutenei.

te ere, gehien kasuan ez da horrela izaten. Eskolaz kanpoko orduetan ere kirola egiteak abantaila ugari ekar diezaike” dio Oscarrek. Bi arrastearren proiektuaren ara-

bera, ahal den kasuetan arazoren bat duena eratuta dauden taldeetan integratuko da, baina bestebatuetan talde bereziak eratu beharko dira.

Hiru fasetan banatuta dago

programa. Hasieran inguruko ikastetxeetara jo dute ezgaitasunen bat duten zenbat gazte dauden jakiteko. Bigarren fasean, kirol begirale eta irakasleei formazioa emango diete. Azkenik, jardunaldiak antolatuko dituzte; apirilean irakasle eta begiraleendako eta maiatzean ikasle guztiendako, integrazioa bultzatu asmoz. Ondoren, taldeak eratu eta programa abian jarriko litzateke.

Oscarren berbetan, “komenigarria litzateke ezgaitasunen bat dutenek programan parte hartzea, eta horregatik, gurasoen laguntza ere eskatu nahi genuke”. Proiektuaren inguruko informazioa jaso nahi dutenek, 79 30 90 telefonora deitu baino ez dute.

## HIRU HAUNDIXEK

LEA ETA APERRI  
MEMORIALA

## 3 EGUNETAN


Apirilak 11, 12, 13.

Izenemate epea:  
apirilaren 4a arte.

Tfnoa: 77 12 28 (Edo AEDn)

Prezioa: 3.800 pta. eta

Bazkideak 3.500 pta.



AED ELKARTEA

Aizkorri, Anboto eta Gorbea igoko dira eta lo Gatzagan eta Urkiolan. Arropak, sakuak eta bestelako ekipajea antolakuntzak garraiatuko ditu lo-lekutik lo-lekura.



**Nacion Reixa eta Elkorobarrutia taldeek kontzertua eskaini zuten Amaia antzokian ostiralean. Eszenatoki-  
ra igotzen lehenak arrasatearrak izan ziren eta ordu erdi batean ikusleen barre**

**algarak ateratzen saiatu ziren Jabi, Nestor, Mikel, Carlos eta Iñaki. Hauen emaldia bukatzerakoan eta minutu batzuetako atsedeneren ondoren, Nacion Reixa taldearen txanda izan zen.**



**Bastida Akademiatik 15 lagun etorri ziren Arrasate Press eta Arrasate Telebista ikustera. Marketing eta salmenten ikastaroko ikasleek bi medio hauetan lana zelan egiten den gertutik ezagutzeko aukera paregabea izan zuten martitzenean. Zalantzak eta kezkak argitzeko galdera mordoa egin eta guztiak erantzuten saiatu ginen.**



**Besaidek antolatuta Ibilaldi neurtua** burutu zen domekan Arrasaten. Leintz bailaratik 1.500 bat neska mutil elkartu zen Kanpazarren goizeko 8.30ak aldera. Txikitxoena

Besaide igo ondoren Atxabalpera jeitsi ziren eta nagusiagoek Tellamendiko tontorra izan zuten helburu. Azkenean izerdi apur bat bota ondoren, Garagartzan elkartu ziren guztiak.




**Lasarte-Oriako Txintxarri aldizkaritik Maialen Sube-  
reiola eta Ana Labaka etorri ziren gurera. Aldizka-  
rian aldaketak egitekotan dabilza eta beste aldiz-  
kari batzuk bisitatzen ari dira oinarriak hartu eta  
zer egin dezaketzen zehazteko.**

# TXOKO TABERNA

*€ure berezitasunak pintxo eta  
mokau gozoak*

### Santiago Tesok 4 kilo t'erdiko amuarraina

harrapatu zuen martitzenean Landako urtegian. Arratsaldeko 6.15etan kainaberran zintziliz geratu zen arraina eta 20 minutu behar izan zituen gora altxatzeko. Santiagok arrantzan joateko zaletasun handia du eta egia esateko txiki txikitatik ikasi du zer den mundu hori. Bere aita arrantzalea zen eta berarekin batera betidanik ibili da arrain bila.



### IZEN PROPIOAK

● Leintze elkartean emakumeendako mus txapelketa antolatu zen domekan. 32 emakumek hartu zuten parte eta 16 bikote osatu ziren. Txapelketa Natalia Simon eta Esther Elorzak irabazi zuten. Bigarren tokian Begoña Azanza eta Mari del Garro bikotea eta hirugarrenean M<sup>o</sup> Jesus Ezkurra eta Vitori Alonso.

● Bixente Urzelai 47 urte Oñatiarra Fagor Altzairuetako pertsonal Buru berria da. Bixente Altzairuetako entzimera taldean ibili da lanean 18 urtetan.

### Erguin Herri Eskolak

**6. Kultur Astea** izan zuen joan zen astean. Astelehenetik ostirala arte hitzaldiak, antzerki emanaldiak, kirol txapelketak eta beste zenbait ekintza izan dituzte ikasleek. Zapatuan berriz, bukaera eman zioten kultur aste-ari eta kirol ikuskizun eta txapelketen finalak izateaz gain, Shanbo pailazo taldearen bisita jaso zuten. Umore saioan umeek eta ez hain umeek gus-tora egin zuten barre..



**DERMATOLOGIA • BENERELOGIA • MEDIKUNTZA • KIRURGIA**

**Cristina Garciandia Mugika**

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**


**Ramon M<sup>a</sup> Lili, 2 Geral. eskubia • BERGARA • Tfnoa: 76 59 39**



## LORAMENDI KIROLAK

*Zure aisialdia  
jazteko, behar  
duzun arroparik  
berriena.*

San Andres eta Garibaien.




**Haurdun bazaude  
LAURA da zure  
jantzidenda.**

**Udaberriko moda  
gaztea jazteko neurria  
ez da izango arazoa.**

**Tailaje zabalena dugu.**

# Laura



**Erdiko Kale, 30  
Tfnoa: 79 05 80  
ARRASATE**



# Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Bigarren Faseko  
5. ihardunaldia.*
- *Protagonistak:  
Juan Jose Guisado eta Pedro  
Jabier Ros*



**B**igarren faseak sorpresa bat baino gehiago eman du gaur arte. Saillkapenari gainbegirada bat ematean argi eta garbi ikusten da. A multzoan goialdean dauden taldeak uste zirenak badira ere, Hirei sekula

baino hobeto dabilela esan behar. B taldean Cervceria Leintzen 5. tokia aipatu beharko litzateke, aurreko urteetan askoz hobeto ibili da eta. Sorpresa handiena MSM Ingenieria Integral eta Insert Coin ematen ari dira. MSM bigarren faseko taldea bada ere,

okerrago ibiltzen da; aurten berriz, indartsu dabil eta bigarren tokian dago. Insert Coinek iaz ez zuen lehen fasea gaingitu. E taldean Trikiti aipatu behar derrigorrez. Betidanik talde sendoa izan da eta une honetan lau puntu baino ez ditu.

## • Txitxinpe •

Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

## “EDERTU” ileapaindegia



San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28



Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 11 72

## ANBOTO BODEGA

*Anzo giro jatorra!*  
Anboto, 1 behea  
Tfnoa: 77 09 15 ARRASATE

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi Ibili	4	4	0	0	22	6	<b>8</b>
Perrahotsa	4	3	1	0	15	10	<b>7</b>
Okoretegi Tab	4	2	1	1	16	15	<b>5</b>
Hirei	4	2	1	1	12	10	<b>5</b>
Kamasutra	4	2	0	2	22	16	<b>4</b>
Txeyenex	4	1	0	3	9	19	<b>2</b>
A ti que te importa	4	0	1	3	10	16	<b>1</b>
Zotz Motz	4	0	0	4	14	28	<b>0</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Sokoakoak	4	3	1	0	21	11	<b>7</b>
Ac Surcos	4	2	2	0	15	10	<b>6</b>
Fosforos	4	2	1	1	19	14	<b>5</b>
Los heredia	4	2	0	2	15	16	<b>4</b>
Cerv Leintz	4	1	2	1	14	14	<b>4</b>
Nuevo taberna	4	2	0	2	23	19	<b>4</b>
Orlando piratas	4	1	0	3	15	17	<b>2</b>
Lautherbrunen	4	0	0	4	12	32	<b>0</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida haizea	4	2	2	0	13	8	<b>6</b>
MSM Ing Int	4	3	0	1	17	11	<b>6</b>
Insert Coin	4	3	0	1	16	16	<b>6</b>
Pub people	4	1	2	1	13	13	<b>4</b>
Arrasate Kirolak	4	1	2	1	16	14	<b>4</b>
Arrogoi Tab	4	1	1	2	15	17	<b>3</b>
DKB	4	0	2	2	16	15	<b>2</b>
Danok lagun	4	0	1	3	10	13	<b>1</b>

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Totem	4	3	1	0	19	12	<b>7</b>
Irati STS	4	3	1	0	14	10	<b>7</b>
Betrayer	4	3	0	1	19	12	<b>6</b>
Aurrera Bolie	4	2	0	2	11	12	<b>4</b>
Sortu Informatika	4	2	0	2	12	14	<b>4</b>
Trikiti	4	2	0	2	14	9	<b>4</b>
Artzakos Udalaiz	4	0	0	4	7	15	<b>0</b>
Anbotoste KT	4	0	0	4	7	19	<b>0</b>

## Hurrengo partiduak

### Larunbata 30 Zaldibar

8.50 Aurrera Bolie - Sortu informatika  
10.00 Hirei - Okoretegi taberna  
11.00 Adelaida Haizea - DKB  
12.00 A ti que te importa - Zotz Motz  
13.00 Irati STS - Trikiti  
14.00 Pub people - Danok Lagun  
15.00 MSM Ing Inte - Arrasate Kir.  
16.00 Txeyenex - Perrahotsa  
17.00 Orlando Piratas - Sokoakoak  
18.00 Totem - Anbotoste  
19.00 Argi Ibili - Kamasutra

### Igandea 31 Zaldibar

8.50 Betrayer - Artzakos Udalaiz  
10.00 Nuevo tab - AC Surcos  
11.00 Cerv Leintz - Lautherbrunen  
12.00 Fosforos - Los heredia  
13.00 Arrogoi Tab - Insert Coin

## ● Zigorra

Oscar Barreno Txeyenex taldeko jokalaria bi partiduko zigorra jasoko du epailea iraintzeagatik.

## ● Markak hausten

Lautherbrunen eta Zotz Motz taldeek gol gehien jaso dute. Lautherbrunenek 12 gol baino ez ditu sartu eta 32 jaso. Bigarren fasean gol gehien jaso duen taldea izan da. Bestalde Zotz Motzek ere bide bera jarraitzen du. Gaur arte 28 gol jaso ditu eta 14 sartu. Biek dagoeneko galdu dute hirugarren fasea sailkatzeko aukera.

## Emaitzak

### A Taldea

A ti que te importas 2 - Perrahotsa 3  
Txeyenex 6 - Zotz Motz 4  
Argi Ibili 5 - Okoretegi taberna 2  
Hirei 4 - Kamasutra 3

### B Taldea

Fosforos 0 - Sokoakoak 2  
Orlando Piratas 6 - Los Heredia 4  
Cerv Leintz 3 - AC Surcos 3  
Nuevo taberna 8 - Lautherbrunen 3

### D Taldea

Arrogoi Tab 4 - Danok Lagun 2  
Pub people 4 - Insert coin 5  
Adelaida haizea 2 - Arrasate Kirolak 2  
MSM Inge Int. 6 - DKB 2

### E Taldea

Aurrera Bolie 2 - Trikiti 1  
Irati STS 2 - Sortu Informatika 0  
Betrayer 3 - Anbotoste KT 1  
Totem 5 - Artzakos Udalaiz

## FUTBITO TXAPELKETA ITURRIPEN

**G**ipuzkoako Futbito Federazioak antolatuta futbito txapelketa berezia jokatuko da ekainaren 22 eta 23an Arrasaten.

Bergaran jokatu zen txapelketaren nolabaiteko jarraipena izango da. Txapelketan lau taldek hartuko dute parte. Zaldibarretik bi talde osatuko dira. Oraindik dena dela, ez dago erabakita taldeak jokalaririk onenek osatuko duten edo finalera heltzen direnek. Beste bat Bergaratik etorriko da eta azkena Gipuzkoako selekzio-jokalariek beteko dute. Arauak futbitokoak izango dira eta epaileak Federaziokoek jarriko



ditu. Txapelketa partidu bakarrera jokatuko da. Zapatuan bi neurketa jokatuko dira eta domekan

beste bi 3. eta 4. postuak erabakitzeko batetik eta txapeliduna eta ordeka bestetik. Neurketak Iturripeko kiroldegian jokatuko dira.

Aurtengoa lehen esperientzia izango den arren, aurrerantzean gauzak ondo iriteten badira, errepikatzen asmoa dago. Horrelako txapelketek antolatzaileen esanetan herri mailako futbitoa bultzatzeaz gain, herrien arteko harremanak sendotzeko balio dute.

## Protagonista

### Juan Jose Guisado Orlando Piratas

- Gaur arte zer moduz doakizue txapelketa?

- Lehen fasean primeran ibili ginen, neurketa asko irabazi genuen sailkapeneko lehen postuetan kokatuz. Azkenean samur lortu genuen bigarren fasera sailkatzeko txartela.

- Bigarren fasean berriz, ez hain ondo?

- Bigarren fasean ez dugu zorterik izan. Hiru neurketa galdu genituen jarraian eta kolpe handia izan da guretzat, batez ere lehen fasean zelan ibili ginen kontuan izanda. Gaur berriz, Los Heredia taldearen kontra neurtu ditugu indarrak eta 6-4 irabazi dugu. Bestalde esan behar dut bigarren fasean epaileak ez dabil-



tzala fin eta behin baino gehiagotan kalte egin digutela hartu dituzten erabakiengatik. Guri kalte eta beste talde batzuei ere bai. Epaileen kontua hobeto neurtu beharko litzateke askotan euren esku geratzen dira eta, erabaki garrantzitsuak.

- Los Heredia taldeari irabaztea espero zenuten?

- Bai, gu irabazteko asmoz kantxarazten gara astebururo eta beti pentsatzen dugu irabazteko gauza garela nahiz eta askotan horrela ez izan. Los Herediaren kontra 6 eta 4 irabazi dugu hobeto jokatu dugulako. Partidua polita izan da

- Txaloak ere jaso dituzue, ezta?

- Egia da. Gure taldeko jokalaria batzuk jokaldi politak egin dituzte eta jendeak txalotu egin ditu. Jendeari golak ikusteaz gain, ikuskitzuna gustatzen zaio eta hori ematen ahalegintzen gara ahal dugun guztietan.

- Txapelketako sorpresa zaretela diote.

- Lehen fasean horrela izan zen. Bikain ibili ginen eta lehen urtea izateko jendea harrirituta zegoen. Bigarren bueltan ez gabiltza hain ondo

baina hemendik aurrera bolarik onean sartzen bagara eta geratzen diren partiduak irabazten baditugu oraindik hirugarrenera heltzeko aukera izan dezakegu.

- Horrela izanda, zuen burua finalean ikusten duzue?

- Hori gehiegi esatea da. Orain partiduz partidu joan behar dugu eta hirugarren fasera helduz gero, etorriko dira etorri beharrekoak.

- Baduzu talde faboritotik?

- Gainontzeko taldeak ez ditut gehiegi ezagutzen baina diotenaren arabera Fosforos, Argi Ibili eta Adelaida Haizea urtero moduan goialdean arituko dira. Dena dela, aurten sorpresarik egon daitkeela uste dut beste talde batzuk gogor ikusi ditut eta.

## Protagonista

### Pedro Jabier Ros Adelaida Haizea

- Arrasate Kirolak kontra partidu gogorra jokatu duzue?

- Oso gogorra, buru belarri ibili gara talde biak eta txarrena egiten zuen bera izan da. Partidu bukaeran leher eginda bukatu dugu, oraindik arnas estuka nabil. Pentsa ezazu nola amaitu dugun.

- Baina paretsu ibili zarate bi taldeak?

- Edozein taldek irabaz zezakeen. Aukera garbiak izan ditugu bai guk eta baita Arrasate Kirolak taldekoak ere. Azkenean bi gol sartzeko gauza izan gara eta berdinketa nagusitu da.

- Zorte apur bat izan



duzue azkenean ?

- Azken jokaldian langarra joan da Arrasate Kirolak taldekoen erremate bat baina ez da ahaztu behar aurreko jokaldian guk izan dugula urrezko aukera gola sartzeko. Lehen aipatu dudan bezala aukera ugari izan da

partiduan eta edozeinek irabaz zezakeen. Bizia eta bide batez interesgarria izan da.

- Nola doa bigarren fasea?

- Lehen fasean ondo ibili ginen beraz ez genuen arazorik izan hurrengorako sailkatzeko. Bigarren honetan ere ezin gara kexatu D taldeko liderrak gara 2 partidu irabazi eta bi berdindu ondoren. Gaur arte 13 gol sartu ditugu eta 8 sartu dizkigute. Bataz besteko ona hirugarren faseari begira. Dena dela, gure multzoa oso parekatuta dago, MSM Ingenieria Integral, Insert Coin eta gu 6 punturakin gaude sailkapeneko buruan.

- Adelaida Haizea txapelketako talde faboritotik da?

- Faboritoak garela diote. Aurreko txapelketetan ondo ibili gara eta etiketa hori jarri digute baina hemen partiduz partidu erakutsi behar da zein den onena. Gaur arte moduan jarraitzen badugu beharbada finalera hel gaitzke baina jakin ere bada-kigu beste taldeak gogor arituko direla hori gerta ez dadin.

- Non jokatzen duzue gustorago Zaldibarren edo Iturripen?

- Zaldibarren zalantza barik. Gainera askoz ere giro hobea izaten da eta kantxahandiagoa denez, jokuak beste bizitasun bat hartzen du. Era berean esan behar da bigarren fasean aurrera txapelketa berotu egiten dela eta jendea gustorago etortzen da neurketak ikustera.

# Uribe Auzko Futbito Txapelketa

**A taldea**

Hirei 4 - The Barrio 6  
 La Mosca Gao 14 - Killer Barbies 0  
 Los Urracas 1 - Kamasutra P 3  
 Pasteleria Papur 3 - Zutari 6  
 Zipote Nukleico 5 - Creature Feature 6  
 Patxi eta txapi 5 - Egocentricos 3

**B taldea**

Amo Katxis 0 - Decima Victima 6  
 Arrasate Zoo 6 - Nuevo Taberna 8  
 Ganba al Whisky 4 - Manchester Fumaited 1  
 Pobres Rangers 10 - Ale alee 0  
 Rayo Batikano 1 - Kamasutra 9  
 Elisabeth 1 - Eight 6

**D taldea**

Bortxitxak 4 - Tandem 2  
 Zig. Mutilzaharrak 2 - Diego antonio 3  
 Borrock Roll P 10 - Gallinero 2  
 Cartonajes Igamo 6 - Power Rangers 5  
 Betrayer 6 - Jaleo Bila 2  
 Zurt 5 - Mikel Lasa S 4

**E taldea**

Pierdonoiuina 3 - Borrock Roll 9  
 Nahiz eta Gure 2 - Racing de Molotov 9  
 Beluga 0 - Koka Juniors 3  
 High Society 2 - Euskal Supporters 2  
 Ganbelas 0 - Joseba Konte 3  
 Balon Rojo 13 - Blind 2

**F taldea**

Cheer Readers 5 - Lautherbrunen 2  
 Potrosorri 3 - Dribling 6  
 Munar txiki 10 - Tropikana 8  
 Interlaken 11 - Arsenal 0  
 Uglys Txinato 6 - Malpikas 3  
 Baneuko 4 - Leya 8

**URIBE AUZOA TXAPELKETAKO HURRENGO PARTIDUAK**

**Larunbata 30**

**Iturripe A**

10.00 Ganbelas - Balon Rojo  
 11.00 Betrayer - Zurt  
 12.00 Beluga - Euskal Supporters  
 13.00 Bortxitxas - Diego Antonio  
 14.00 Decima Victima - Eight  
 15.00 Lautherbrunen - Leya  
 16.00 Zig Mutilzaharrak - Gallinero  
 17.00 Uglys Txinato - Baneuko  
 18.00 Los Urracas - Zutari  
 19.00 Interlaken - Malpikas  
 20.00 Pierdonoiuina - Racing de Molotov

**Iturripe B**

12.00 Borrock Roll - Blind  
 13.00 Cheer Readers - Dribling  
 14.00 Pasteleria papur - Creature Feature  
 15.00 Amo Katxis - Nuevo Taberna  
 16.00 Cartonajes Igamo - Jaleo Bila  
 17.00 Arrasate Zoo - Manchester Fumaited  
 18.00 Hirei - Killer Barbies  
 19.00 Potrosorri - Tropikana  
 20.00 Zipote Nukleico - Patxi eta Txapi

**Igandea 31**

**Iturripe A**

9.00 Nahiz eta Gure - Koka Juniors  
 10.00 The Barrio - Egocentricos  
 11.00 Ganba al Whisky - Ale Alee  
 12.00 La mosca Gao - Kamasutra P  
 13.00 Tandem - Mikel Lasa S.

**Iturripe B**

9.00 Pobres Rangers - Kamasutra  
 10.00 High Society - Joseba Kontenedoreak  
 11.00 Rayo Batikano - Elisabeth  
 12.00 Borrock Roll P - Power Rangers  
 13.00 Munar Txiki - Arsenal

## Uribe auzoko sailkapena

**A taldea**

Kamasutra Promesak 6  
 Zutari 5  
 Patxi eta Txapi 5  
 Killer Barbies 4  
 Hirei 4  
 Los Urracas 2  
 Egocentricos 2  
 La mosca Gao 2  
 The Barrio 2  
 Creature Feature 2  
 Pasteleria Papur 0  
 Zipote nukleico 0

**B taldea**

Nuevo taberna 6  
 Eight 6  
 Decima Victima 5  
 Pobres Rangers 4  
 Ganba al whisky 3  
 Amo Katxis 2  
 Rayo Batikano 2  
 Ale Alee 2  
 Elisabeth 2  
 Arrasate Zoo 0  
 Manchester Fumaited 0

**D taldea**

Diego Antonio 6  
 Betrayer 5  
 Borrock Roll P 4  
 Zig Mutil Zaharrak 4  
 Jaleo Bila 4  
 Bortxitxak 3  
 Power angers 2  
 Cartonajes Igamo 2  
 Gallinero 2  
 Zurt 0  
 Mikel Lasa S 0

**E taldea**

Koka Juniors 6  
 Balon Rojo 5  
 Nahiz eta Gure 4  
 Beluga 4  
 Racing Molotov 4  
 Joseba Kon 4  
 Blind 3  
 Borrock Roll 3  
 High Society 2  
 Eusko Supporters 1  
 Ganbelas 0  
 Pierdonoiuina 0

**F taldea**

Dribling 6  
 Uglys Txinato 6  
 Potrosorri 4  
 Malpikas 4  
 Cheer Readers 4  
 Lautherbrunen 4  
 Baneuko 2  
 Tropikana 2  
 Munar Txiki 2  
 Interlaken 2  
 Leya 2  
 Arsenal 0

# AEDko Nesken Futbito Txapelketa

**Bigarren ihardunaldien emaitzak**

Saktale 5 - Ekin Gogor 1  
 Abstine Subtine 1 - Joixon Bertan 1  
 Jo ta Akabau 1 - Izenbakuak 6  
 Zeppaesstandon 3 - Jo ta Bertan Gol 1

**Hurrengo partiduak**

10.00 Joixon Bertan - Jo ta Bertan gol  
 11.00 Zappaesstandon - Ekin Gogor  
 12.00 Abstine Subtine - Izenbakuak  
 13.00 Jo ta Akabau - Saktale.

# Ezkontzea zaila da gero!

Beñardo Kortabarría

**O**inez ibiltzen aspertu eta bikotea espaloiko banku batean jazarri zen. Horrela luzaroan egoteko hotz egiten zuen domeka hartan, baina bi gazteei bost axola. Maitasunaren beroak babesten zituen.

— Bixente maittia, -esan zion neskak begietara zuzenduz- ezkonduko gara?

- Badaukat bai gogoa Miren, baina noiz? -erantzun zuen bizardunak, urduri samar neskatxaren begietara zuzenduz-.

- Udaberri aldera, ez? sasoirik polittena da.

- Primeran bihotza.

— Eta bi gazteak bat egin ziren hotzaren beldurrik ez zuen besarkada batean...”

Makina bat buruhauste sortu ohi da antzerako istorioen ondorioekin. Ezkontzeko erabakia erraz har daiteke, baina errealitate bihurtzeak ematen du bai hainbat lan. Udaberritik aurrerako egiten dute zita bikote gehienek, baina unea baino dezentete lehenago hasi behar gauzak prestatzen.

## SENAR ETA EMAZTE ZARETE!

Elizaz edo zibilez? Erantzuna garbi izanez gero an-

tzeraz samarrekoa da egin beharreko bidea. Jaiotze agiriak, enpadronamendukoak, eta hamabost

egunez ezkontzeko asmoa jendaurrean egotea eskatzen da, pare bat lekukoren sinadurarekin batera.

Tramitea elizaren bidez eginez gero, ezkontza kanonikoa izango da; epaitegiaren bidea hartuta, berriz, zibila.

Kontua paperetan geratuko balitz, gaitz-erdi. Ibilbideak, baina, luze jotzen du. Bikotea epaitegi aurrera edo eliz atarira hurbiltzerako dena prest izan beharko du, hasteko dotore dotore eta irrifartsu azaldu beharra. Ordurako seguru denda bat baino gehiagotan egon direla, hau gusztatzen zait baina oso garestia da, bestea ez hainbeste baina ordainenezake, zapata hauekin ezin ibili... Behetik jota, dirutan gizona zkoarena

75.000 pezetatan aurki daiteke, trajea, alkan-dora, gorbata eta zapatak; emakumezkoarena,



berriz, 100.000 eta 200.000 pezeta artean. Ez ahaztu gainera ileapaindegiko tartetxoak.

Tristeia izango litzateke norbera dotoreziaren gailurrera igota eta ezkondu beharreko tokiari ikututxo bat ez ematea. Lorak jartzen dira gehienetan, ezkondu behar dutenen kontura noski. Kopuruaren arabera atera beharreko kontua da, baina nekez ordaindu daiteke 15.000 pezetatik behera.

Ezkontza bidea aurrera doa, eraztunak jartzeko unea. Eraztunen ohiturari jarraitzen zaio oraindik, bikotearen loturaren seinale gisa epaitegian zein elizan. Ohitura horren erruz, eraztun pare bategatik, 15.000 pezeta inguru ordaindu beharko du bikoteak. Urrezko sinpleenekin konformatzen bada behintzat, bitxikeriatan sartuz gero auskalo noraino iritsi daitekeen diru kopuru hori. Beno, eraztunak jarri eta bikotea ezkondu. Senar eta emazte zarete!, sinaduraren papelada egin, lagunengandik arroz dutxa hartu, eta argazkiendako txanda. Bideoa ere ezkontza askotan ikusten da gaur egun. Argazkien truke 85.000 pezeta ordaintzea eta beste hainbeste bideoarengatik ez die inork kenduko ezkonberriei. Baina lagunekin eta familiakoekin argazkiak ateratzen badira, aurrez gonbidapena bidali zaielako da, eta hor ere bada-gasto bat, gonbidapen merkeena 85 pta. inguru kobratzen dute; garestienak, 250 pezetan bueltan dabilta.

Dena dela, kamara aurreko tramitea beteta, ospatzera, ordurako jendea gosetuta eta egarrituta egoten da eta.


**HAU BETEKADA!**

Jatetxearen gaiari aurre egin behar ondoren. Gainera elizaren bidez ezkondu eta toki tradizionalak aukeratuz gero -Loiola, Arantzazu, Dorleta...- gutxienez dozena erdiko hilabeteko aurrerapenez

ibili beharra dago, normalean udaberriari hasi eta udazkena arte inguruko jatetxeak asteburuetan beteta egoten dira eta. Behin jatetxearen aukera eginda, menuarena zintzilik. Eta horez da mugarik egoten. Jatetxe gehienetan ez dute ezkontzetarako bereziki egindako menuak edukitzen, bikoteari uzten zaio gustoko duena eskatzeko lana. Gorabeherak gorabehera, prezioei dagokienez esan daiteke inguruko jate-txeetan 6.000 pezetatik gora hasten direla ezkontzetako menuak egiten. Entremes hotz eta beroak, arrainen bat, okelaren bat, postreak eta ondorengo kafe, kopa etab. sartuko lirateke prezio horretan. Hortik gora, jakina, mugarik ez, norberak gura duena. Zenbat eta gehiago eta hobe, zenbat eta garestiago aterako zaie ezkonberriei. Txanpainarenak ere badu bere zera ezkontzetan. Gehienetan bikoteak eraman ohi du, edari biltzegin batean boteila pila bat erosi ondoren, merkeago ateratzeko asmoz. Deskortxe famatua kobratzen dute baina jatetxe batzuetan, bikotearen merketzeko asmoa askotan bertan behera uzten duena, ez dago eta deskortxerako prezio jakinik.

Txanpaina bezala, puroak eta ezkonberriak egiten dituzten opariak menuaren prezioetik kanpo geratzen dira. Nekeza da diru kontuak aipatzea arlo honetan, puro klase asko egoteaz gain, opari desberdin ugari egin daitekeelako. Dena dela kontuan hartzekoak dira ezkontza gastuak aurrikusterakoan.

Bazkari edo afari legea eginda, ezkonberriak lehenengo eta gura dutenek ondoren, mundu guztia dantzara!. Jakina, musika behar horretarako. Norberak edo jate-txeak ekar ditzake musikariak. Kasu batean edo bestean, lagunendako prezio berezia egiten ez badute, 50.000 peze-



**“Ez dago mugarik menuaren aukera egiterakoan, 6.000 pezetatik gora nahi adina konbinazio eta nahi adina prezio aurki daitezke”**

tatik gora ordaindu beharra dago musikariengatik. Norberak harremanik ez izanez gero, jatetxe gehienetan dute ezkontzetarako musika taldeen zerrendaren bat. Baina bada hor ere, ordaindu beharreko zerga bereziren bat, beste edozein ikuskizunengatik ordaindu behar izaten dena hain zuzen ere.

Bidekoa jo ondoren bukatzen dira ezkontza gehienak. Batzuk, nahikoa eginda, etxerako bidea hartuko dute, beste batzuk parrandari eutsiko diote. Ezkonberriei ere, bidaian irtetzeko presarik ez badute bigarren aukera har-

- Ileapaindegia ... 15.000
- Lorak ..... 15.000
- Eraztunak ..... 15.000
- Gonbidapenak .. 15.000
- Argazkiak  
eta bideoa .... 170.000
- Jatetxea ..... 800.000
- Txanpaina ..... 25.000
- Puroak ..... 40.000
- Opariak ..... 40.000
- Musikariak ..... 60.000
- Bidaia ..... 300.000
- Guztira ..... 1.720.000

Merke samar egindako diru kontuak dira horiek. Gastu gehiago ere egoten da, andregaiaren eskuko loretxoak, deskortxea, bidaiaren gastuak... eta ezin ahaztu horri guztiari gehitu behar zaiola BEZ famatua. Beraz, askoz ere gorago joango litzateke goiko kopurua. Hala ere, dezente handia da. Bizitzan ez ei da gehiegitan egiten. Eskerrak horri!



tzen dute gehienetan. Edozein modutan, bihar ez bada etzi ekingo diote bidaiari, maleta eskuan hartu eta hanka! Kanariar Irlak izan dira ezkonberrien bilgune nagusia orain artean, baina Santo Domingo, Kuba, Mexiko... gehiago aukeratzen dira azkenaldian. Sasoiaren arabera merkeagoa edo garestiagoa ateratzen da, baina batzuetan beste hamabost eguneko egonaldi bat Kanariar Irletan 100.000-120.000 pezeta artean irtetzen da, Santo Domingo/Kuba 150.000 inguru, Mexiko 200.000... diru kontuak?

hamabost egunetan behintzat ez pentsatu horretan. Gero geroakoak!

### DIRU KONTUAK BUELTAN

Diruarena aurrez egitea komeni bada ere, itzuleran, ondo belztutako aurpegiz atera daitezke diru kontuak argi eta garbien.

Demagun gure Bixente eta Mirenek 100 laguneko ezkontza egin dutela, tarteko janaria, bidaia normaltxoa,... pasatu barik. Kasu horretan honako diru kontuak egingo litzukete:

- Jantziak ..... 225.000

## Iaz 5 ezkontza hileroko

Arrasateko hirurogeitamar bikotek aukeratu zuten iazko urtea euren ezkontza egiteko, horietatik 45ek elizaren bidez egin zuten eta gainontzeko 25ek epaitegiarena.

Hilez hile, horrela joan ziren kontuak:

- Urtarrila, zibilez 2, elizaz 2.
- Otsaila, zibilez 1, elizaz 1.
- Martxoa, zibilez 3, elizaz 2.
- Apirila, zibilez 2, elizaz 1.
- Maiatza, zibilez 4, elizaz 4.
- Ekaina, zibilez 3, elizaz 6.
- Uztaila, zibilez 5, elizaz 9.
- Abuztua, zibilez 1, elizaz 1.
- Iraila, zibilez 3, elizaz 8.
- Urria, zibilez 1, elizaz 7.
- Azaroa, zibilez 0, elizaz 2.
- Abendua, zibilez 0, elizaz 2.

Datoek argi adierazten dutenez, udako opor aurreko eta opor osteko bi hilabeteak izan ziren emankorrenak ezkontzei zegokienez. Izan ere, bikote askok, bata bestearekin lotu guran edo, bata prestatzeko denbora gehiago eduki guran aukeratzen du urteko sasoi hori. Orain, hasi ezkontzen dantza udaberrian hasten da, maiatzean du abiapuntua.

## Iñaki Muñoz

# Karatea erakusten eta ikasten

Iñaki Muñoz Saioa karate taldeko karatekak ez du erraz ahaztuko astebukaera hone-tan bizi izan duen esperientzia. Estatuko Karate txapelketan hartu du parte Bartzelonan. 29 urteko arrasatearra Gipuzko-ako ordezkari bakarra izan da kumite modalitatean.

**- Zer moduzko esperien-tzia izan da ?**

- Hitz baten esateko, zora-garria. Parte hartzen nuen lehen aldia zen. Orain bi urte jubenil mailako beste kara-teka bat joan zen Arrasatetik, baina seniorretan ni izan naiz lehena. Lehen aldia izateko oso gustora etorri naiz, gai-nera esan behar dut bertan Europako eta munduko kara-teka onenak zeudela. Izan ere, Estatuko maila ikaraga-rria da.

**- Gipuzkoako ordezkari bakarra, nola lortu zenuen txartela?**


- Gipuzkoako txapelketan hiru lehenen artean sailkatu nintzen eta baita Euskadiko- an ere. Gero aurreselektzio bat egin zuten 18 karateka one- nen artean eta 7 aukeratu zituzten neu bat izanik.

**- Kumitean aritu zinen?**

- Bai, 80 kilotik gorako Kumitean hartu nuen parte. Borrokaldi ariketak egin behar izan nituen.

**- Gustora egindako lana- rekin?**

- Pertsonalki ez. Oso urdu- ri jarri nintzen, egia esateko hori muntaia handia da: argiak, antolakuntzak... horrenbeste jende urduri jartzen zaitu eta nerbioak kontrolatzea zaila egiten da. Banan banako lanean mun- duko txapelkunarekin neur-



tu behar izan nituen indarrak lehen borrokaldian. Izugarria izan zen, ez nengoen kontzientziatuta eta gutxigatik galdu egin nuen. Taldekako lanarekin berriz, oso pozik nago Andaluziako eta Valen- tziako selektzioak gainditu genituen eta Kataluniakoaren kontra galdu. Orohar ondo dago.

**- Zer prestaketa behar du horrelako txapelketa batek?**

- Joan zen urteko irailetik nabil prestatzen. Eguneror- du t' erdi edo bi ordu eskaintzen diot kumiteari. Denbora horre- tan borrokaldiak prestatu ditut,

ez karatea. Batzutan nire kon- tura entrenatzen dut edo Bil- bora joaten naiz Euskadiko selektzioaren entrenatzailearekin aritzeko.

**- Txapelketa bateko gauza onenak eta txarrenak?**

- Onena hartzen den espe- rientzia. Hurrengorako bada- kit txapelketa aurrera aterat- zeko zer ez dudan egin behar. Txarrena halako maila ona egonda oso zaila dela zerbait lortzea.

**- Zein da zure helbu- rua?**

- Estatuko selektzioan iza-

tea baina gaur egun niretzat utopia da hori.

**- Zein ezaugarri behar da karateko txapelketa baten par- te hartzeko?**

- Batez ere azkartasuna eta teknika. Esatebaterako borro- kaldian 60 kilo azpiko mun- duko txapelkunak bere eskuak 110 km. orduko abiaduran mugi ditzake. Hori kontrola- tu ahal izateko teknika ona behar da bestela mugimendu azkar hori egitean gihar guz- tiak hautsi ditzakezu.

**- Txapelketa batean zer har- tu behar da kontuan?**

- Lehendabizi froga hori aurrera ateratzeko gauza zare- la sinestea, hau da, oso moti- batuta egon eta konzentra- zioak ere osoa behar du izan.

**- Hurrengo erronka zein da?**

- Taldekako Euskadiko txapelketa. Apirilaren 28an burutuko da Gasteizen eta hori da dudan erronka.

**- Nola hasi zinen karatean?**

- Ikasten nenbילהa lagun batek kiroldegian karatea ema- ten zela esan zidan eta joate- ra gonbidatu ninduen. Bi bider pentsatu barik bertara joan eta esaten den moduan engan- txatu egin nintzen.

**- Jendeak ulertzen du karatea?**


- Jendeak oso kontzeptu arraroa du karatearekiko, borrokarako eta norberaren defentsarako bakarrik balio duela uste du. Baina karatea kirola da, kirol sanoa eta ez du zerikusirik biolentziare- kin. Pelikuletan ikusten dena gezur hutsa da, karateko kla- se batean ez dira horrelako gauzak ikasten, mundu hori ez doa bat karatearekin.

.....  
**“Lagun batek bultzatuta 16 urterekin hasi nintzen karatean. Orain 29 daukat eta nire ilusio handiena Estatuko selektzioan izatea litzateke”**



# Eskubaloikoek hil ala biziko partidua domekan Iturripen

Eskubaloi taldeak partidu erabakiorra eta irabazi beharrekoa du domekan eguerdiko 12etan Iturripen. Nor baino nor Arrasate eta Zarautz izango dira. Herre- roren mutilek Ereintzaren kontra irabazi egin zuten eta garaipen hori jeitsiera fasea ez jokatzeko nahikoa zela bazirudien ere, aurkari zuzene- nek, hau da, Beti onak eta Hormigones Vigok irabazi egin zuten, azken ihardunaldian erabakiko da zein talde- dek jokatu duen jeitsiera fasea. Arrasatek arazo barik lehen mailari eusteko derri- gorrez irabazi behar du. Hala ere, ez du nolana aurkaria izango. Zarautzek igoera faseko txartela du jokuan partidu horretan eta hori lortze- ko nahi eta nahiez behar ditu puntuak. Garaipen premia handia duten bi taldeen arteko norgehiagoka ikusgai egongo da Iturripen domekan. Saiklapenari begira, Zarautz da faboritua. Izan



Urteko partidurik garrantzitsuenak jokatu du eskubaloi taldeak.

ere, bigarren tokian dago 25 punturekin. Gaurdaino jokatutako 19 partiduetatik hamar irabazi ditu, bost berdinu eta lau galdu. Denboraldi bikaina egiten ari dela esan behar. Arrasatek bestalde, 12 pun-

tu ditu baina ez da ahaztu behar azken partidutan maila ona erakutsi duela neurketa gehienak irabaziz. Herrero eta bere jokalariek baikortasunez ikusten dute partidua. "Irabazteagure esku dago eta ezin dugu

huts egin. Horretarako kontzentrazioa eta herritaren laguntza nahi eta nahiezko baldintzak izango dira. Ea bada, arrasatearrak animatzen diren eta Iturripen jendez betetzen dugun!".

## Play Offaren zain

Urbina Maltzagak Vino de Toro taldearen bisita jaso du zapatuan arratsaldeko 7etan iturripen. Arrasateko taldeak dagoeneko igoerako play offeko txartela eskuartean du. Orain aurkaria zein izango den jakitea falta da. Horretarako azken ihardunaldia jokatu beharko dute eta adi egon Askatuak eta Arteixo taldeek egiten dutenarekin. Bi talde horien artean egongo da eta, Urbina Maltzagaren play offeko aurkaria. Aska-

tuak Señorío de Zugastiren kontra neurtu behar ditu indarrak zapatuan eta Arteixoren aurkaria Clesa Ferrol izango da. Arteixo eta Askatuak irabaziko balute, Samaniegoren taldearen aurkaria Donostiako Askatuak izango litzateke. Arrasatek irabazi, Askatuak galdu eta Arteixok irabaziz gero, Arteixo izango litzateke aurrean; Urbina Maltzagak irabazi eta beste biek galdua, Askatuak. Urbina Maltzagako ordezkariak

play offa Askatuak kontra jokatu nahi dute etxetik gertuen dagoen taldea delako eta horrek gastu asko murriztuko litzuzkeelako. Dena dela, aukerak hor dau- de eta azken ihardunaldira arte ez da argituko zalantza.

Zapatuko partiduari dagokionez Urbina Maltzaga da faboritua. Usteak betetzen badira Samaniegoren taldeak ez luke arazorik izan behar puntuak lortzeko.

## LABURRAK

### Emakumeak belarrezko zelaian

Mondra taldeko emakumeek Bergararen kontra neurtuko dituzte indarrak zapatuan arratsaldeko 430etan. Neurketa aspaldiko partez Atxabalpeko belarrezko zelaian jokatuko da. Arrasateko taldeak jokalaria guztiak gertu izango ditu eta esan behar da irabazteko moduko neurketa dela. Mondrak gainera lider jarraitu nahi badu garaipenaren bila zelairatu beharko du. Bestalde 3. mailako Mondrak Zamudio izango du aurrean zapatuan arratsaldeko 5etan Zamudion.

*Naiara Okina eta Ines Osinaga*

# Nahi bai, baina... azkenean bai!

Hamairu urte baino ez dute baina Euskadi Irratiko Trikiti Pieza Berrien txapelketan poupurri saileko lehen saria eskuratu dute. Garaipena biek sortu duten "Nahi bai baina..." kanta bitxiari esker lortu dute. Trikitixan sekula egin ez dena egin zuten Naiara eta Inesek: musika klasikoa herrikoiarekin nahastu. Bi arrasatearrek txapelketako ikusleengan eta epaimahaiarengan harridura sortu zuten.

— Zerk animatu zintuzten lehiaketara aurkeztera?

— **Ines:** Zeozer berria egin nahi genuen. Bestalde, probatzearen ezer galtzen ez genuela ikusi genuen, beraz, kantua asmatu, SHOT! estudioan grabatu eta zinta bidali genuen txapelketara.

— Nola egin zenuten kanta?

— **I:** Poupurri bat da, abesti zatiekin egin dago, hemezortzi kantu eta obra desberdinen zatiekin. Ezagutzen genituen obra klasiko batzuk hartu eta horien pasarte ezagunenak gaintontzeko abestien arteko loturak egiteko erabili genituen, beraz, klasikoko pieza ezagunen zatiak eta oraingo abestiak tartekatatu ditugu "Nahi bai baina..." kantant. Egia esan, denetarik dauka.

— Zergatik uste duzue epaimahaiari zuen abestia gustatu zitzaiola?

— **Naiara:** Abesti orijinala da eta orain arte trikitixan sekula erabili ez diren errekursoak ditu, klasikoa adibidez. Bagenekien jende nagusiari asko gustatzen



zaiona klasikoa beraz, epaimahaiakideei ere gustatuko litzaekeela pentsatu genuen. Bestalde, abestiaren amaieran, panderoa eta ahotsa bakarrik erabiltzen ditugu eta hori ere orijinala da. Gauza berriak egin genituen eta epaimahaiari hori gustatu zitzaion.

— Hamairu urte baino ez eta kantu bat sortu duzue. Maixak lagundu dizue?

— **I:** Ez. Berak asko animatu gintuen baina kanta gurea da guztiz. Gainera, Maixak ez zuen gure kantan eskua sartzerik nahi, berak esaten zuen hobe zela guk bakarrik egitea nahiz eta azkenean ezer ez lortu.

— Aurrez egin zenuten zuen kontura beste kantaren bat?

— **N:** Bai. Iaz Arrasate Kantari jaialdian parte hartzeko abesti bat sortu genuen baina oraingoaren aldean oso desberdina zen.

— Eszenatokiko urduritasuna handia izan zen?

— **N:** Nik oso gaizki pasatu nuen, oso urduri nengoan.

— **I:** Tilarik ez genuen hartu baina nik ere oso gaizki pasatu nuen. Hasieran lasai nengoan baina eszenatokira igotzeko ordua heldu zenean ezin nuen zutik egon ere.

— Finalisten arteko lehia gogorra izan zen?

— **N:** Baietz uste dut. Trikitilari gehienak profesionalak ziren, txapelketetan parte hartzeko ohitura dutenak, erromeriatan jotzen dutenak, klaseak ematen dituztenak... gainera oso pieza onak aurkeztu zituzten.

— **I:** Ez genuen irabaztea espero. Oso trikitilari onak zeuden: Zabale anaiak, Solano... lehia gogorra izan zen.

— Profesionalak izatea gustuko litzazueke?

— **I:** Nahi bai baina... Egia esan, niri gustatuko litzaidake baina oraindik gazteak gara. Saiatuko gara. Poliki poliki, egunero lan eginez... denborak esango du!

— Datorren urtean parte hartuko duzue?

— **N:** Bai, behintzat ahaileginduko gara. Poupurriaz gain, beste estilo bateko kantaren bat sortzen ahaileginduko gara.

*"Ez genuen irabaztea espero. Oso trikitilari onak zeuden: Zabale anaiak, Solano... lehia gogorra izan zen"*

# Txusma musika taldea

## Heavy-metal gordina maketan

“Txusma” heavy-metal talde arrasatearrak maketa grabatu du orain egun gutxi SHOT! grabaketa estudioan. Patxi Oregik, Oskar Aransaezek, Jon Lasagabasterrek eta Joseba Izarzelaiak osatzen duten taldea orain urte eta erdi sortu zen.

### Benetako heavy-metalak

Taldea gaztea izan arren, taldekideek argi daukate zein musika mota egin nahi duten. Patxi Oregik azaltzen duenez, “orain oinarritzko heavy-metalak egiten duen oso talde gutxi dago hemen. Musika estilo honen inguruan korronte asko sortu da eta benetako heavy-metalak, oinarritzkoa, ahaztu egin du askok. Gure taldeak heavy-metal garbia egiten du.”

Bi kitarra, baxu bat eta bateria batekin lau kantaz osatutako maketa grabatu dute arrasatear hauek. Momentuz 3 kontzertu baino ez dituzte eman, izan ere, 4 taldekide-



Txusma taldea gaztea heavy zaharraren bidea aukeratu du.

ak lanean ari dira eta denborarik ez dutela esaten dute. Lehenengo kontzertua Intsumisoen egunean eman zuten; bigarrena Eskoriatzako jaietan eta hirugarrena Arrasateko kiroldegian Su Ta Gar eta Etsaiak taldeekin batera.

Grabaketa egin eta gero euren maketa ezagutzera emateko asmorik baduten galde-tzean, zera dio Patxi Oregik: “Egia esan, bost kopia baino ez ditugu egin. Gure asmoa

maketa herriko tabernatan banatzea da eta honez gero, Iluntz eta Etixeraten daude. Baina arazo bat dago: tabernetako musika tresnak dezentete jota daude eta ez da batere ondo entzuten musika. Horrela ez dago zer eginik, txarto entzutea baino, hobeto ezer ez entzutea. Kontzertuak ematea gustatuko litzaiguke eta horretarako maketa irratietara bidali behar dugu. Hor ere arazo bat daukagu, laurok lanean

gaude eta ez dugu denborarik. Arazo horri buruz serio hitzegitekotan gaude”.

### Era guztietako letrak

Oskar Aransaez eta Jon Lasagabasterren artean egiten dituzte kantueta letrak. Maketan lau abesti sartu dituzte eta era guztietako gaiak ikutzen dituzte. “Danza de Guerra” izeneko abestiak indioei buruz hitzegiten du; bitxikeria moduan, “Bailando con lobos” pelikulako soinua pasartetxo bat sartu dutela esan behar da, indioen oihuak entzuten diren pasarte motz bat. “Estoy loco” kantaren arazo sozialei kantzaten diete; “Patrullas del Aberno” kantuan mugimendu faszistek egiten diete kritika eta “Tierra y muerte” Jugoslabiako gerraren sarraskian oinarrituta dago. Kantak erdarazkoak dira eta hori da taldean zintzilik dagoen beste gai bat. Patxi Oregik dioenez euskarazko kantak egiten ahalginduko dira aurrerantz.



*Kalitate gorena leihoetan*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE




OINETAKOEN AUTOZERBITZUA  
Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

# Aste Santua

## LASO-ARREGI ARGAZKIA

*Apirilaren 1etik aurrera  
Jokin Zaitegi Plazan egongo gara,  
8. zk.an (Roneo zaharra)*




### Irekiera Eskaintza!!!

# %50

**beherapena**

*Errebelatuetan eta 135 mm.ko kolorezko karreteetan.  
Eskaintza baliagarria 1996ko apirilaren 30arte.*




● *J. M. Velez de Mendizabal*

# Hiru liburu argitaratzeko gertu

**Egunero idazteko ohitura duen idazlea da Jose Mari, eta ezertan aditua ez dela esaten duen arren, edozertaz idazteko gai da. Momentu honetan hiru liburu ditu argitaratzeko gertu: laster argia ikusiko duten elaberria eta bibliografia, eta Arrasateri buruzko liburua.**

baina liburua oso klabe ari-nean idatzita dago. Lan egun gogor baten ondoren etxera iristen naizenean, nahiago dut filosofia irakurri beharrean liburu errazagoak hartzea. Horregatik, niretako funtsezkoa da nik idatzitakoa ere erraz irakurtzekoa izatea. Liburua hondartzan, autobusean edo igogailuan irakurtzeko modukoa da.



● - "Moskuko Gereziak" izena jarri diozu elaberriari. Zertaz doa?

- Espioitzaren ingurukoa da. Aurreko elaberrian erabili nuen pertsonaia bera azaltzen da honetan ere, baina nik neuk bizi izandako esperientziak isladatzen ditut. Moskun kokatu dut akzio guztia, eta bertan ezagututako eszenatokiak eta pertsonaiak erabili ditut. Kontakizuna hegazkin batean hasten da. Protagonistak elkarrizketa luze bat du Ukrainiako emakume batekin, eta emakume hori nik neuk ezagututakoa da. Korapilo nagusia asmatuta dago, baina aipatzen diren lekuak, janariak... benetakoa dira.

- Irakurterreza da?

- Bai, denborapasa idatzitako liburua da. Fizikioaren aria ezkutuan eraman dut,

● - Eta hizkuntza aldetik?

- Jokin Zaitetik esaten zuen bezala, "Nik dakidantxo eta kitto!". Zaindu ditut Euskaltzaindiaren azken arauak baina hizkuntzaren arloan, nik baino gehiago argitalertzeko zuzendariak egin du.

Liburuan bestalde, semeak egindako lau edo bost marrazki agertzen dira. Elaberria irakurri eta marrazki batzuk egin ditu ilustrazio modura.

● - Beste libururik ere baduzu eskuartearen, ezta?

- Bai, bigarren bat ere inprimategian dago, baina hori Eusko Ikaskuntzaren eskariz egin dut. Gerardo Lopez de Gereñu, etnografia arabarraren patriarka bezala ezagutzen den ikerlariari buruzko biografia da. Gerardo hil aurretik ezagutzeko aukera izan nuen ez eta bera-

rekin elkarrizketak eta egin da nituenez, orain horiek paperera pasa ditut.

● - Eta hirugarren bat ere badu omen duzu gertu.

- Horrela da, "Nire haurtzaroko Arrasate" izena jarri diot horri. Orain dela lau hilabete utzi nuen liburua Udalaren esku, eta lehenbailehen argitaratzea komerzial litzateke.

50. hamarkadako Arrasate gaitzat hartuta orduko gizartearen, famili giroaren, denborapasen, jokuen, jaien... kontakizuna egin dut. Liburu hori idazteko jende askorekin egin behar izan dut hizketan. Ikerketa lana egin dut baina liburua apala da. Ni ez naiz ezertan aditua, baina gauza desberdinetan arakatzea gustatzen zait. Ziur nago istorio hori nik baino hobeto kontatu dezakeen jendea badagoela Arrasaten, nik sartu irten bat baino ez dut egin.

deba badagoela Arrasaten, nik sartu irten bat baino ez dut egin.


● - Zergatik 50. hamarkada?

- Hamarkada hori oso garrantzitsua izan zen, gerra osteko gizarte kapitalista atzean utzi eta kooperatibismoari ekin zion Arrasatek. Aldaketa horrek imigrazioa, auzo berriak eraikitzea... eta beste hainbat fenomeno ekarri zuen. Gertatzen dena da orduan oso gutxi idazten zela eta ez dagoela testigantza idatzirik. Ondo legoke garai horri buruzko ikerketa egitea, eta liburu honen bidez hori zirikatatu nahi nuke.

● - Nondik ateratzen duzu idazteko denbora?

- Egunero pare bat ordu sartzen ditut idazten eta irakurtzen. Derrigorrez egin behar dut hori. Azken hamabost egunotan hala ez dut idatzi. Momentu honetan hiru liburu ditut ateratzeko gertu, eta ea horiek kaleratu eta berriz ere idazten hasten naizen.

● **"Lan egun gogor baten ondoren etxera iristen naizenean, nahiago dut filosofia irakurri beharrean liburu errazagoak hartzea"**



rain 51 urte ateratako bi argazki gaurkoan, biak aintzinako Biteri Eskolaren aurrean.

Goiko argazkian Eskola Politeknikako lehen ikasleen promozioa dago. Zutik, ezkerretik eskumara:

**Alejandro Arauzo, Gregorio Uranga, Luis Garmendia, Gualberto Gorosabel, Joseba Arregi, Pako Arriaran, Nicasio Garai eta Teodoro Zubizarreta.** Eserita: **Maximo Uribesalgo, Luis Larreategi, Julio Gallastegi, Domingo Agirreurreta, Mariano**



**Barrena, Sebastian Uribesalgo, Manuel Zubizarreta eta Angel Garitano.** Denek 65 urtetik gora dute gaur egun.

Goikoan ikasleak bezala beheko argazkian Eskola Politeknikako lehenengo irakasleen klaustroa

daukagu. Zutik daudenak, ezkerretik eskumara: **Gaspar Ezkurra, Prudentzio Osinaga, Antonio Balerdi eta Jesus Palacios.** Eserita: **Jose Lasa, On Jose Maria Arizmendiarrieta eta Antonio Montiano.**

## Z E R N A H I A G O ?

## Espe Etxaniz

### "Tokion" bazarrekoa



- Kometa ikusi duzu? Ez.
- Aste Santuan nora zoaz? Errioxara.
- Dantzan egitea gustatzen zaizu? Bai.
- Zer? Musika popa, tabernetan jartzen dutena.
- Erosi duzun azken diskoa? Anje Dualderena.
- Zer gorrotatzen duzu? Injustizia.
- Irratiko zein emisora gustatzen zaizu? Euskadi Gaztea.
- Nondik ekartzen dituzu dendako irratiak? Donostia, Madril eta Bartzelonatik.
- Zer erostera etortzen da jendea? Batez ere erlojuak.
- Memoria ona duzu? Ez.
- Zer edaten duzu tabernetan? Alkohol gabeko edariak.
- Joaten zara solariumera? Ez.
- Zenbat irрати dituzu etxean? Zortzi gutxienez bai.
- Zein txanpu erabiltzen duzu? Edozein.
- Zein animala izatea gustatuko litzaizuke? Arranoa.
- Asko aldatu zara gaztetandik? Ez dut uste.
- Praka estuak ala zabalak? Estuak.
- Euskal Herriko txoko polit bat? Donostiako Kontxa.
- Badakizu musean? Bai.
- Haragia ondo egina ala erdi gordinik? Erdi gordinik.
- Goizetan zelako umorea izaten duzu? Gosaltzen ez badut txarra.
- Bitrozeramika ala ohiko sukaldea daukazu etxean? Bitrozeramika.
- Gutunik idazten duzu? Bai.
- Azkena nora? Alemaniara.

## LABURRAK

### Dokumentazio bila

Otaloran Don Jose Maria Arizmendiarreta eta Arrasate 1940 eta 1970 bitarteko urteei buruzko filme labur bat egin nahi da. Gaiarekin lotutako edozein argazki edo filme duenari laguntza eskatzen zaio. Horrelakoren bat duenak, ARRASATE PRESSera ekarri edo Otalora jauregira eramán dezake.

### Piano kontzertua

Amaia Epelde, 32 urteko azkoitiarrak piano errezitaldia emango du larunbatean Amaia Antzokian. Musikariak 1983ra arte bere jaioterrian egin zituen piano ikasketak eta ondoren Madril joan zen Goi Mailako Irakasle titulua ateratzera. 1986an beka batekin lau urtez Errusian jarraitu zituen ikasketak. 1991an berriz, New Yorkeko Mannes College of Music-ean piano masterra egin zuen eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako beste diru laguntza batekin, piano interpretazioko master diploma lortzeko aukera izan zuen. 1993an "Newton Swift'93" saria jaso zuen New Yorken.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**




Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

• ESAERA •

*“Izaera harri guztiak  
urratzen dituen  
diamantea da”*


BARTOL

• JEROGLIFIKOA •



Nola gertatu zen istripua?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Rodriguez, Corazón de Encinako lehendakaria. 6. BAI hitzaren laburtzapena. 8. Azinoak dituen. 10. Alfabetoko 11. letraren izena. 11. Bilo. 12. Ibiliz egiten den bitartea. 15. (Ald.) Zebakien zerrendan lehena. 16. (Ald.) Anabasa. 17. EEBBetak mendebaldeko estatua. 19. (Ald.) Ordezko Zerbitzu Soziala. 20. (Ald.) Metal astun eta biguna. 21. Sexu maskulinoa duen animalia.

**Bertikalak** 1. Jakinaren gainean dagoe-na. 2. Borratu. 3. Musika-eskalako 7. nota. 4. (Ald.) Liho. 5. Hezketa, berriketa. 6. Burgosko ibilgailuetan. 7. Anaitasunezko, anaitar. 9 Greziako irla, Egeo itsasoan. 13. Haran, bailara. 14. Hilarion, militar boliviarrak. 18. Helioa.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Zer izan nahi duzu? Galdera hori argitzen hasi.

**Taurus** Familiartekoez baztertu egiten zaituzte. Inbidia ote?

**Gemini** Auskalo zenbatek esaten dizuten jatorra zarela!

**Cancer** Mezu iraingarri bat utziko dizute kontestadorean.

**Leo** Jokuan ondo moldatzen zara, baina berbetan...

**Virgo** Kalera irtetzen hasi behar duzu, oinez ahaztu baino lehen.

**Libra** Ordenagailuekin ez egi duzu harreman ona. Pertsonekin bai?

**Scorpio** Urteak aurrera doaz baina zu oraindik ume.

**Sagitaris** Etxeko lanetan gutxi laguntzen duzu. Hori aurpegia!

**Capricorn** Imaginazioa baduzu baina lanerako gogo falta zaizu.

**Aquarius** Pena galanta ematen du zu horrela ikusteak.


**Piscis** Aurpegiko kolore gorriak ardoaren ondorio dira.

# Etxe-Aundi

Torrauzo, 9  
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90  
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,  
**EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!**  
Egin zure erreserba orain!!



Anna de Codorniu



TELEBISTAREN TXOKOA



# Astebete saioan, "Herrietan" aldizkari berria

**A**ramaio eta inguruko beste herri bartzuen ekimenez "Herrietan" aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu da gaur. "Herrietan" informazio aldizkaria da, hau da, Aramaio eta inguruko herrietan jaso-

tako berriak ezagutzera ematea izango du helburu. Arantxa Ibabe "Herrietan" aldizkariako kazetaria Astebete saioan izango da gaur gaueko 9.30etan aldizkari berriaren nondik norakoak azaltzeko.

KOMIKIA



Zagazar.

PROGRAMAZIOA



22 Ostirala

13.30etan  
Albiste aurrerapena

29 Ostirala

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak

9.30etan  
Astebete  
Gaia: "Herrietan" aldizkari berria.  
Gonbidatua: Arantxa Ibabe "Herrietan" aldizkariako kazetaria.

1 Astelehena

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport

2 Asteartea

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Barrelekaixoka

3 Asteazkena

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Nor Nori Rock

4 Osteguna

Ez da programaziorik egongo

5 Ostirala

Ez da programaziorik egongo

## Otxe-Aundi

1. PLATERA

*Bi plater aukeran*

*Etxeko gozoteria*

2. PLATERA

*Haragia edo arraina*

*Etxeko ardo gorria eta beltza*

*Kafea*

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Jesus. 6. Ba. 8. Azinudun. 10. Ka. 11. Il. 12. Ibiat. 13. (Ald.) Tab. 16. (Ald.) Soak. 17. Urah. 19. (Ald.) SZO. 20. (Ald.) Nureb. 21. Ar.  
Bertikalak: 1. Jakitun. 2. Ezabatu. 3. Si. 4. (Ald.) Unil. 5. Solas. 6. BU. 7. Anai kor. 9. Delos. 13. Ibar. 14. Daza. 18. He.  
Jerooglifikoa: Bapatean.

**Etxebizitzak**

- **Pisua alokagai** ikasle edo irakasleendako. Tfnoa: 79 39 02. Gauko 9etatik aurrera.
- **Bikote bat pisu bila dabil.** Tfnoak: 77 11 70 edo 72 60 62. Gauko 9etatik aurrera. Agurtzane.
- **Pisua salgai Makatzenan.** Osorik berritua, berogailuaz. Ganbara, 3 logela, eguzkitsua... Tfnoa: 79 07 64.
- **Bizkaia etorbidean pisua alokatzen da.** Tfnoa: 77 14 24 / 76 17 38.
- **Etxebizitza salgai Makatzenan.** Tfnoa: 79 99 72.
- **Etxebizitza salgai, Uribe auzoan.** Tfnoa: 79 70 37. 7etatik aurrera.
- **Etxebizitza salgai Ferixalekuan.** Tfnoa: 79 01 42. Dei egin 8etatik aurrera.
- **Arrasaten gela baten bila nabil** edo pisua osatzeko jendea nahiko nuke. Tfnoa: (94) 461 41 86.
- **Pisua salgai erdialdean.** 90m<sup>2</sup>. Ganbara eta garage itxiarekin. Tfnoa: 79 42 13.

**Lana**

- **Neska gaztea mekanografian** titulatu eta informatikako ezagupenekin (Datu basea, Word-Perfect, MS-Word, Lotus). Tfnoa: 79 84 31.
- **Emakumea gertu umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 76 45.
- **Andra gereontologia** diplomatua eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Enpresa zientzietan** lizentziatuak matematika eta kontabilitateko klase partikularrak eman-garbitzeko. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 16 19.

- **Kontzertuen iluminazioarako**, 25 urtetik gorako, gidatzeko agiriak eta 2 urteko esperientzia duen pertsona behar da. Tfnoa: 79 67 25.
- **Neska esperientziadunak** umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 53 57. Gauko 9etatik aurrera.
- **Neska gertu umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 93 17.
- **Euskaraz, ingelesez eta gaztelaraz** edo beste hizkuntza batzutan ipuin pertsonalizatuak egiten dira. Tfnoa: 79 47 54.
- **Marraketa diedrikoaren klaseak** jasoko nituzke. Euskaraz ahal bada. Tfnoa: 79 32 10. Iratxe.
- **Ileapaindegian diplomadun** neska esperientziaduna lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 81.
- **Etxeko lanak egin**, umeak zaindu edo bulegoak garbitzeko esperientziadun neska gertu. Tfnoa: 79 31 44. Mirian.
- **Neska prest umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 37 09.
- **Klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 77 02 42.
- **Neska prest umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 71 44 65.
- **Esperientziadun neska**, OHoko klase partikularrak emango lituzke euskaraz zein erdaraz. Tfnoa: 79 25 09. Ana.
- **Enpresa zientzietan** lizentziatua klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 06 39.
- **Ingenierutzako ikasle bat** euskarazko klase partikularrak emateko prest. OHO, BBB eta UBI. Tfnoa: 79 74 18.
- **Neska euskalduna behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Asteleheneretik ostegunera 8.30etatik 10etara. Tfnoa: 79 66 55.
- **Klase partikularrak ematen dira** erdaraz. EGB, BUP, COU, FP, FP II. eta Pascal programazioarenak. Tfnoa: 79 27 88.

**Salerosketak**

- **Singer josteko makina** muelle moderno eta gutti. Merke. Tfnoa: 79 45 58.
- **Lapurren aurkako alarma salgai.** Denda edo tabernetarako aproposa. Tfnoa: 79 65 31.
- **Gorputz erdiko solarium-a salgai.** Tfnoa: 79 23 58.
- **Osagarri guztiak dituen sukaldea salgai.** Merke merkea. Tfnoa: 79 89 07. Kandi.
- **Gela baterako bitrina txiki bat erosiko nuke.** Tfnoa: 79 23 58.
- **Bebe Confort-eko Turbo Twin** birkiendako kotoxea salgai. Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 10 23 22.
- **R-5 salgai.** Bost atekoa eta 10 urte ditu. 90.000 pta. Tfnoa: (94) 681 98 65. Gaeuz.
- **"Documentos", "Enciclopedia Larousse", "Enciclopedia Vasca" eta "Historia de Euskal Herria"** salgai. Tfnoa: 79 59 43.
- **Yamaha Super Tenere 750** salgai prezio interesgarrian. Goio. Tfnoa: 79 80 61. Arratsaldez.
- **Nikon AF, 70-210 mm.** objetiboa salgai. Paraisol eta filtroarekin. Tfnoa: 76 52 31. Jesus. Gaeuz.

**Denetarik**

- **Betaurrekoak galdu ditut** Abaroa eta Garibai autobus geltokiaren artean. Tfnoa: 79 36 93.
- **Edozein arrazako txakur kume** emea hartuko nuke. Tfnoa: 76 26 52 edo 79 83 50.

**Aste Gazte**

**Udalekuak 96**

• Diputazioak antolatutako udalekuan parte hartzeko aurreinskripzio epea apirilaren 16tik 29ra izango da. Adina: 7-13 urte. Aurreko urtetan legez, zozketa egingo da. Dokumentazioa: inskripzio orria eta NAN edo Famili Liburuaren fotokopia. Izenematea: Gazte Bulegoan.

**Auzolandegiak**

• Aurtengo udako auzolandegietan parte hartzeko aurreinskripzio epea apirilaren 9tik 19ra izango da. Aurtun ere plazak zozketaren bitartez banatuko dira. Adina: 15-30 urte bitartekoei zuzenduta. Ize-

nematea, Gazte Bulegoan.

**Lanpostuak**

- Errederiko Udalak informatika eta antolakuntza teknikari bat aldi baterako kontratatzeko deia egin du. Epea: apirilak 3.
- Nafarroako foru Erkidegoak ondoko lanpostuak deitu ditu: A) ATS fisioterapia espezializatua edo fisioterapeuta lanpostu bat. Epea: apirilak 10. B) Sukaldari bat; Eskola Graduata. Epea: apirilak 10. D) 3 hezitzaile: Goi Batxilerra. Epea: apirilak 12.
- Gipuzkoako ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ordez-

kapenak egiteko zerrendak zabalik daude. Titulazioa: Magisteritza Lehen Hezkuntzan espezializatua (ingeleza gorputz hezkuntza, entzumena eta hizkuntza eta eskolaurrea). Hizkuntz eskakizuna: 1 eta 2. lanpostuen arabera.

• Asteburuetan prentsan agertzen diren lan eskeintza guztiak Gazte Bulegoan izaten ditugu, nahi duenak kontsultatzeko.

**Bekak**

• Antzuola Herria" ikerketa beka. helburua: Antzuolako euskararen ikerketa linguistiko globala egitea. Diru kopurua: 700.000 pta. Iraupena: 12 hilabete. baldintzak: Euskal Filologian lizentziatua izatea edo azken ikasturtean matrikulatuta egotea. Epea: apirilak 15.

**"Gazte izatea eta zalantzak izatea gauza bera dira. Gogorra da, baina ezinbestekoa"**

**VANESSA PARADIS, ABESLARI FRANTZIARRA**



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

# AG AMAGARA

**...eta SORPRESA batetaz gain,  
ORDAINTZEKO ERREZTASUN  
paregabeak eskaintzen  
dizkizugu!**



Masaia



Fangoterapia

**Zure irudia berreskura ezazu, hobeto sentituko zara.**  
Hobetzen lagunduko dizugu zure gogoaz eta eskaintzen  
dizkizugun teknika guztiakin.

- Drenaje linfatikoa
- Hidroterapia
- Fangoterapia
- Elektroterapia
- Dieta pertsonalizatua
- Terapia mediku-estetikoak



Hidroterapia

**ZATOZ ORAIN!**  
Zure adina zure itxurarena da.

**AMAGARA**

Erdiko Kale, 54 etxabea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 09 09

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

## UGARTE

AROSZTEGIA

Leiho termoakustikoak • Ateak  
Horma armairuak • Altzariak




ALTZARI ERRUSTIKOAK



San Juan, 1 (Gasolindegiaren parean) • BERGARA • Telefono eta Faxa: 76 54 91

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 



15 azken  
egunak!  
Ez galdu aukera!

#### SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g  
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

#### BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52  
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42

**IRABAZI**

# 10.000.000

zure AENOR agiridun sukaldea erosiz IKER-en.

**PTA.**